

# ↻ Hizpide ↻

## XX. mendeko abenturak

TERESA COLOMER



**H**asieran ez zen abentura izan. Hurrei espezifikoki zuzendutako literatura umeen unibertso hurbil eta familiarra irudikatzen hasi zen. XIX. mendean bigarren erdian familia mota berri bat sortzen ari zen, eskola umeak sozializatzeko gune ordua arte ezezaguna eta liburuen beharra zuena egituratzen ari zen, eta gizarte burges berriak industriagune handietako haur erauzi eta esplotatuz errukitzen hasi ziren. Haien hurbileneko eredu literarioak folletina eta ohiturazko nobela bezalako formak izango ziren. Hala ere, luze gabe abentura eta urruneko espazioen konkista hasiko ziren haur eta gazte aldizkarietan nagusitzen. Heldu zirenean, geratzeko heldu ziren, eta ia ez dago irakurlerik nerabegaroko irakurgaien artean abenturazkoak izan ez zuenik. Ondoren, eta gaingiroki, genero horrek XX. mendeko haur eta gazte liburuetan jasan dituen itxuraldaketak aztertuko ditugu.



## 1. Iragarritako arrakasta baten arrazoiak

Abenturak alde duen lehen ezaugarria narrazio ulerterrazetan kokatzearena da, irakurlela hunkipena eta intrigaren bidez erakartzen dutenak. Abenturetako narrazioak ahozko literaturaren ahaide dira, mitoetatik edo epika tradizionaletik eratorriak baitira, eta, herri ipuinen kasuan bezala, darabilten literatur formula kontakizunaren formarik sinpleenetatik hurbil dago. Horrexegatik, hainbat eraginkortasun-baliabide hobetu dute, mendeetan zehar populazio masa handien aisialdirako bide izan diren aldetik; horregatik, azken batean, ulertzen dira hain erraz. XIX. mendean irakurleria zabalari (langileak, emakumeak, umeak) zuzendutako herri literatura idazten hasi zenean, abentura izan zen emanaldikako egunkari eta aldizkarietako generorik arrakastatsuena. XX. mendean denborapasarako fikzioa lerratu zenean ikusentzunezkoetara eta literatur ekoizpen komertzialetara, *best seller* direlako aplikatutako irakurgarritasun formula jakin batzuk ezarriz, kasurako, abenturak merkatu-kuota zabala bereganatu zuen, produktu berri horietan bere oinarritzko eskema eta baliabide narratiboak errepikatuz eta topikorik eraginkorrenak berrerabiliz.

Abenturak alde duen bigarren ezaugarria inpregnatzeko eta egokitzeko gaitasun handia da. *Inpregnatzeko*, zaila delako literatur genero gisa mugatzea. Haren ezaugarriak literatura zati handi baten azpiko patroï narratibo baten barruan kokatuta daude, eta oso definizio zorrotza adostu behar da abenturaz mintzatzen garenean zein obrez ari garen jakiteko. Honakoak adostu ahal ditugu, esaterako: normalean haren ezaugarrien barruan protagonista bat egon ohi da, bakarra, ekin-tza arriskutsu eta ezhokikoak burutzen dituen; ekin-tza horiek askotan toki ezezagunetarako bidaietan, edo urruneko jokalekuetan kokatzen dira; heroiak autonomoki bizirauteko duen gaitasuna lantzen duten gertaera ezustekoak eta arriskutsuak jazotzen dira.

*Egokitzeko*, eredu jokaleku desberdinetara moldatzeko gai delako, eta azpigenero askotarako bidea eman duelako. Jada XIX. mendean zehar, gerora etekin handia emango zuten aldaera batzuk ezagutu zituen: hasierako robinsonen segidaren ostean, laster etorriko zen mundu berrien konkista, kolonizatzaile zurien figura tokian tokiko biztanleei kontrajarrita (amerikar mendebaldean, Afrikan, urruneko sortaldean); abenturazaleen bizimoduak (piratak, bandoleroak, etabar); edo denboran oso atzera egitea, nobela historikoa sortzeko, edo etorkizunean espekulatzea, zientzia fikzioaren hasierarekin.

Abenturak alde duen hirugarren ezaugarria gazte literatura bihurtzeko aukera ematen diona da. Herri literaturaren barruan garatutako azpigenero horiek guztiak gozamen bereziaz irakurri zituzten irakurle nerabeek osatutako gizataldeek, eta abenturetako kontakizunak nerabeen

## ↪ Hizpide ↪

irakurgai nagusia bilakatu ziren. Hori gertatzen da abenturak gazteen adinean bereziki baloratzen diren bi ezaugarri batzen dituelako: hunkidura eta intrigaz betetako kanpoko gatazken bidezko garapena, eta, froga horien bidez, protagonistaren heldutasun bidearen kontakizuna. Ohikoa da jada<sup>1</sup> nerabeentzako abentura modernoaren jatorria Daniel Defoeren *Robinson Crusoe* (1719) nobelan zuzenean kokatzea, eta, Enric Cassany-k (2002) adierazi duen bezala, gogoratu behar da idazlan horrek bere literatur iturri zuzenak –bidai kronika eta autobiografia espirituala– gainditu zituela, kanpoko ekintza mugimendu psikologikoarekin uztartzen dituen literatur formula modernoa aurkitzeko; horrexegatik dute jatorria obra horretan abenturetako kontakizun modernoek zein nobela introspektiboak. Egia esan, *Robinson Crusoe* delakoak istorio interesgarri bat kontatzen da, baina gizon baten formazio eta hobetzeko barne prozesua ere erakusten da, eta munduan bere zibilizazio gunea sortzeko gizateriak eramandako borrokaren balore unibertsala gauzatzen da; hau da, hezkuntz etekin handiko balorea da, Robinson Crusoe pedagogo eta hezitzaileentzako ezezik, geroko gazte literatur ekoizpenerako ere oso pertsonaia erakaragarria bihurtu zuena.

Abenturaren konstante horiek, ordea, adin gutxiagoko haurrentzako literaturatik urruntzen dute. Idatzizko alderdian, abenturak luze samarra izateko joera du, azpitramek egitura zailtzen diote, bigarren mailako pertsonaia ugari agertu ohi ditu, jokaleku arrotzetan gertatzeak geografi, histori edo kultur informazio gehigarria eskatzen du, eta autonomia eta erabakiortasun dosi handiak dituen protagonistarekin identifikatzera behartzen du. Mark Twain-ek abentura haurren unibertsora egokitze ahalegin nabarmena egin zuen baina, hala ere, onartu behar da arestian zerrendatutako ezaugarriak ez datozela bat hamabi urtez azpiko haurrei eskaini ohi zaien fikzioarekin. Ondorioz, haur liburuek honako estrategiak erabili dituzte abenturaren munduan aritzeko: abentura horiek famili munduan edo animalia gizatiartuenean gertatutako pasadizo sinpletara mugatzea; edota abenturetako imaginario urriak irakurlearen berehalako identifikaziotik urrun mantentzea, fantasi edo umorezko obretan kokatuz, zein txikiak ahozko literaturarekin erlaziona ditzaketen literatur formatara eramanez. Orduan abenturak ohiko duen errealismoa galtzen du, eta irakurleei ezagunak zaizkion genero fantastikoetan kokatzen dira, edota umorezko distantziatik bizitzeko, edo, lehen irakurleentzako liburuetan gertatu ohi denez, tartekatutako pertsonaien bidez bizitzeko (Colomer, laster argitaratzekoa).

Horregatik guztiagatik, berezko haur literaturaren etapan ez dago genero horretako titulu klasikorik XX. mendeko bigarren erdia arte. Abenturako klasikoez, gaur egun gazteentzako klasiko gisa hartuak, publiko guztientzako obren artean sailkatu zituzten beren tituluak

### Oharrak

1. Ikus, adibidez, *Oxford Companion to Children's Literature*, Oxford University Press, delakoko definizioa.





salbuespenik gabe. Hala ere, egia da «klasiko» horietatik gutxi batzuek irakurle gaztea aintzat hartu zutela idatziak izan orduko. Esaterako Jules Verneren *Bidaia apartak* (*Voyages extraordinaires*), nahiz eta liburuak izandako arrakastak guztiz gainditu zuen irakurle gazteen eremua, eta gazteei begira sartutako elementu didaktikoak alderdi zaharrituena den geroko irakurketan.

## 2. Gazteentzako abenturaren ibilbide historikoa

### 2.1. Klasikoen erresuma

Fundación Germán Sánchez Ruipérez delakoak 2000. urtean antolatutako biltzarrean landutako *Cien obras de literatura infantil española del siglo XX* izeneko zerrendan, abenturaren generoko titulu bakar bat agertzen da hirurogeiko hamarkada baino lehen: Josep M. Folch i Torres-en *Les aventures extraordinàries d'En Massagran*, 1910ekoa. Umorezko abentura liburua da eta, horri esker, irakurleen eremua beheko adinetik zabaldu ahal izan zuen. Beste toki batean (Colomer, 2001a) aurreratu dudan hipotesiaren arabera, Espainian haur eta gazte literatura sortzeko *Institución Libre de Enseñanza* delakoak zabaldu zuen idearioa gerra zibilaren aurreko burgesia katalanaren kultur proiektuaren garapenaren baitan bakarrik gauzatu ahal izan zen. Ez da harritzekoa, beraz, nerabeek irakurtzeko idazlan garrantzitsu samarrak literatura katalanean bakarrik aurkitu ahal izatea, literatur eskaintza zabala betetzeko gogoari jarraikiz (gainera daiteke, adibidez, Carles Soldevila-k 1926an idatzitako *Lau o les aventures d'un aprenet de pilot*, itsas abenturako koordenada klasikoenen arabera idatzitakoa).

Eta jatorrizko proiektu haren espiritua berreskuratzeko ahalegin beragatik beharbada, literatura katalana izan zen hirurogeiko hamarkadan bultzada abenturazaleari eutsiko ziona, Josep Vallverdú, Joaquim Carbó, Emili Teixidor eta beste bezalako egileekin. Bidenabar esanda, horietatik gehienak gizonezkoak izatea kasualitatea izanda edo ez, mutilen imaginarioarekin lotutako fikzioaren egile dira, garai bereko gaztelaniazko idazlan nagusiak emakumezkoek idatziak diren bitartean.

Gune modernizatzaile horretatik harantzago, abenturak hurbilen dituen arloetatik hurbil aritzen diren zenbait titulu europarren bitartez heldu zen abenturaren generoa Espainiara: narrazio historikoak –bigarren mundu gerrari buruzkoak bereziki–, eta kulturarteko jakingaiari buruzkoak; biak ala biak hezkuntza baloreak azpimarratzen dituztenak eta, zehazkiago, gerra amaitu berriak eragindako izuaren ondoren goraka zihozan giza baloreen aldekoak.

Hala ere, funtsean esan daiteke abenturak XIX. mendeko klasikoe-tan babestuta jarraitu zuela hirurogeita hamarreko hamarkada arte,



## ↪ Hizpide ↪

mendebaleko mundu osoan gazte nobelagintza berria sortu zen arte. Edonola ere, laster ikusi ahal izan zen bezala, nerabeentzako irakurgaien eraberritze sakonak ez zuen ekarri ordua arte haien irakur-genero nagusia izandakoaren garaipena. Izan ere, gazte nobelagintza berria beste arazoez kezkatuta jaio zen: balore berriak eta gizarte postindustrialetako bizimodu berriak islatzeaz, guztiz eskolatua zegoen gazteria erakarriko zuten formula literarioak proposatzeaz, edo XX. mendean sortu edo indartutako baliabide artistikoen bidez gazte literatura modernizatzeaz.

### *2.2. Abenturaren lehia kokaleku berriaren bila*

Oro har, eta hirurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkaden artean, esan daiteke borrokatzen diren eta era guztietako lur eta itsasoak korritzen dituzten pirata, esploratzaile, bidelapur edo naufragoez osatutako imaginarioak desagertu egin zirela. Haien presentzia beste koordinada batzuetara mugatu zen: edo jokaleku irudizko eta konbentzionalak, non pertsonaiak irudimenaren bidez babesten edo jolasten diren; edo generoko elementu gisa baliatzen dira, umorezko parodiarako eta jolas metaliterariorako. Logikoa denez, abenturaren esentzia bidaia inizatiko gisa, zoritxarraren aurrean indarrak neurtu eta heldutasunerako bidean bere nortasuna sendotzen duen heroiaren narrazio gisa, ezin zitekeen desagertu. Nerabezaroko irakurleentzat aukerakoa izateak, eta eredu narratiboak haurren adin desberdinen artean mugitu ahal izateak ziurtatu egiten zuten abenturaren ezinbesteko presentzia oinarrizko eskema hori baliatu zuten haur zein gazte idazlan askotan. Baina gazteentzako literatura tradizioan abentura gauzatu zuten elementu jakinek zailtasun handiei egin behar zieten aurre halakotzat biziraun ahal izateko. Garai txarrak izan ziren abenturarentzat.

Germán Sánchez Ruipérez Fundazioaren *Centro Internacional del Libro Infantil y Juvenil* delakoaren *Mil libros* izeneko bilduman, 12 urte bitartekoentzako gaikako sarreran, bakarrik daude «abentura» gisa sailkatuta ahozko literaturaren ereduaren arabera egindako narrazioak (elezaharrak, adibidez), edo narrazio fantastikoak eta umorezkoak, klasikoetatik abiatuta tartekatutako jolas intertestualen batekin. Eta 12 urtetik aurrerakoetan, zerrendan XIX. mendeko klasikoak bakarrik agertzen dira, Joan Manuel Gisberten idazlan baten salbuespenarekin. Orobat XIX. mendeko klasiko dira «piratak, oihanak, azalgorriak edo robinsonak» sarretako obrak, nahiz eta azken horien artean –generoaren hastapenetan bezala– salbuespen batzuk dauden: *La isla de los delfines azules*, Bigarren jatorriko makinaizkribua. Horiexek dira, hain zuzen, gazteentzako abentura eraberrituko duten parametroetako batzuk (emakumezkoen protagonismoa, generoen arteko nahasketa, eta abar). Beste aldetik, egiazta daitekeenez, magia ez dago abenturarekin lotuta, «epika fantastikoa» ize-





### Oharrak

2. Horietako batzuk T. Colomer (1995): «¿Malos tiempos para la aventura?», *Peonza* 34, 24-30 delako artikuluan azaldu ziren. Interesa duen irakurleak abenturetako narrazio berriekin zerikusia duten eraikuntza-elementuen analisia ere aurki dezake (esaterako, gazte literaturako obretako ahots narratiboarena, 269-273 oo.), edo generoen adinkako analisia, beste honetan: T. Colomer (1998): *La formación del lector literario. Narrativa infantil y juvenil actual*. Madrid: Fundación Germán Sánchez Ruipérez.

neko sarreran izan ezik, hau da, «goi fantasia» izenez ezagunagoa den generoan.

1993 arteko argitalpengintzaren hautaketa batean XIX. mendeko klasikoak nagusi izateak bidea ematen digu hemen abenturaren imaginario tradizionalak bere burua eraberritzeko aukitu zituen zailtasunak azaltzeko.

Lehen zailtasuna, abentura jokaleku ezagunegietan kokatzearen ondorioa zen, telebistak interkonektaturiko eta «herrixka global» gisa definitutako mundu batean. Bigarren zailtasuna gazteei zuzendutako literatura sostengatzen zuten hezkuntza balioen aldaketatik zetorren. Balore inperialista eta eurozentrismen aurkako joerak, ingurune naturalarekiko eta kanpoko kulturekiko begirunezko jarrera berriekin batera, bidegabeteu egiten zituzten horrelako idazla-

netako ohiko aurkariak, hala nola beltzen eta indioen tribuak edo basabereen ehiza. Robinsonek edo Tarzanek animaliak hiltzeko orduan erakusten duten axolagabekeriak, eta baita haien arraza-mesprezuak halako harridura eta arbuioa sortarazten duten egungo irakurleen sentiberatasunean. Hirugarrenik, urte horietan gertatu zen literatur esperimentazioarekiko, eta tradizioaren parodiarekiko eta jolasarekiko joerak ezinezko egiten zuen generoaren jarraipena sistematikoki esplizitatu, hautsi eta desmitifikatutako arau batzuen barruan.

Haur eta gazte literatura era desberdin batzuetara saiatu zen zailtasun horiek saihesten. Zenbaitetan, irtenbidea tartekatutako oztopoari erantzun zuzena ematea izan zen. Beste batzuetan, era sotilago batez, abenturen eredu berritzeari ekin zitzaion, egungo literaturako beste eredu eta joera nagusiekin elkartzuz. Ikus ditzagun ondoren, beraz, abenturaren iruditeria klasikoak eraberritzeko erabilitako baliabideetako batzuk.<sup>2</sup>

#### 2.2.1. Jokaleku berrien bilaketa

Irakurlearen zibilizazioarekiko espazio ezezagun eta urrun baten beharrak testuinguru narratiboa denbora-espazioko koordinada berri batzuen barruan kokatzera eramaten zuen. Zenbait lan abentura tradizionalaren baldintzak betetzen dituzten egungo munduko espazio «erreal» urriak baliatzen saiatu ziren, eta mundu industrialetik urrunen dauden kulturetan kokatu ziren, hala nola inuiten edo amazoniar tribuen baitan. Mota horretako narrazioak urte haietan sorturiko mezu ekologistarekin lotu ziren eta, ikuspuntu kolonizatzailetik aldentuz, «aurkitutako» kulturetan betiko geratzeko eta ingurugiro naturalarekin harmonian irauteko

## ↪ Hizpide ↪

protagonisten –mundu industrializatuko kideak beti–gogoari eusten diote. Horixe gertatzen da, esaterako, *La nit dels Arutams*, *El Superfenomen*, *Si puges al Samarghata*, *Ostirale edo bizitza basatia*, edo, baserri-ingurunean, *El amigo oculto y los espíritus de la tarde* idazlanetako zenbait protagonis- tekin.

Kasu gehienetan, hala ere, garaiko literaturaren aukera bere espazioa hiru norabidetan proiektatzea izan zen: etorkizunerantz eta planetatik kanpo, iraganeko historiarantz, edo indar magiko eta ezezagunetako mundu paraleloetara. Hala jokatzuz, eredu narratibo berriak sortu ziren: zientzia fikzioa, eleberrri historikoaren eraberritzea eta fantasia eta misteriozko eleberrigintza.

Lehen bi kasuetan, abenturarako jokaleku egokiak bilatzeak lagundu egin zuen zientzia fikzioa eta narratiba historikoa gazte literaturaren esparruan sartzen, sarritan adierazi den bezala. Hirugarren irtenbidea berritzaileagoa izan zen; izan ere, jokaleku fantastiko eta misterioitsuak erabiltzea bat zetorren fikziozko idazlanetako errealitate eta fantasiaren arteko mugak ezabatzen zituzten literatur joera berriekin. Orduan, abenturazalea, urrunera abiatu ordez, «barrurantz» jo zuen, bi mailen arteko espazio anbiguoetara, edo galdutako magia eta naturaren aldarrikapenerantz. Garai horretatik aurrera landu den misteriozko abenturaren adibide gisa hor daude *Kakarraldoak hegaldatu egiten dira iluntzean*, Gisberten abentura fantastikoak edo terrorearen generoa gaurkotzen duten idazlanak, hala nola *El principe de la niebla*.

Baina beharbada Bastian da, *Amaigabeko historia* eleberriko irakurle-heroaia, abenturari forma berria eman zion irudimenaren indarren baitan egindako bidaia anbiguo horren adibide programatikoa. Idazlan horretan adierazten den bezala, bizimodu urbano eta postindustrialetan sartu ahala magiarako eta irudimenerako gaitasuna galdu dituen gizartearekiko kezka hori dago abenturaren jokalekuen aukeraketaren, eta genero horretako beste titulu askoren gogoeta-asmoaren oinarrian, hala nola Joles Sennel-en *Gidaliburu fantastikoa*, garai beretsuan Espainian generoa inauguratu baitzuen.

### 2.2.2. Azpigenero klasikoen eragina

Eraberritzeko beste bide bat abentura klasikoaren elementu eta jokaleku asko nahita nahastearena izan zen. Literatura modernoaren berrezko jokabidea da hori, literatur tradizioaren



## ↪ Hizpide ↪



ageriko kontzientziatik abiatuta eraikitzen baitu irakurleak. Hala sortu ziren, batetik, literatur errekreazioak eta mito, elezahar eta pertsonaia historiko edo folklorikoen fusioak; eta, bestetik, heroiak jokaleku batetik bestera ezin bizkorrago pasatzen ziren horien abentura-ahalbideak baliatzearen, gerriletako gerratik itsasontzien abordatzeetara. Adibideetara joz, hor dira *Atalanta* edo *El fill de la pluja d'or* greziar mitologiako bildumak; *Joanot de Rocacorba* erdiaroko jokaleku eta pertsonaia famatuaren pilaketa; *La alquimia del cor*, *Asperú*, *joglar embruixat* edo *Ronja, la hija del bandolero* literatura tradizionaleko sustratoak; *Amalgabeko historia* delakoko erreferentzia kulturalak; *Silenci, capità!* gazteentzako klasikoaren errekreazioa; edo *Patançràs Xinxolaina* edo *El superfenomen* jokalekuen pilaketa.

### 2.2.3. Hurbilketa psikologikoa

Idazlan gehienetan, abenturak introspektzio psikologikoko osagai indartsu bat ekarri zuen. Heroiak jarraitu zuen abenturari dagozkion kanpoko gatazkei aurre egiten, baina oraingoan bizirauteko eta heldutasunera iristeko bakarkako abentura zen, nerabeentzako idazlan berri gehienetan nagusi zen barne gogoetatik ez oso urrun. Abentura kontatzeko aukeratutako ezaugarri narratiboek baieztatu egin zuten antzekotasun hori. Narrazio psikologikoetan bezala, heroiak berak kontatzen zuen abentura lehen pertsonan, egunkari pertsonalak tarteko zirela batzuetan; beste aldetik, narrazioa ez zen biziraute fisikoko gatazka bat konpontzera bideratutako ahalegin-sorta hutsa, baizik eta, eskema hori gaindituta, gai sozialek edo heldutasun afektibozkoek garrantzi handia hartu zuten.

Hala, esaterako, *Julie y los lobos* idazlanean, poloetako izotzetan bizirauteko borrokak bat egiten du bai inuiten bizimodu tradizionalean aurrean bizimodu modernoak indarrez ezartzeari buruzko gogoetarekin, bai Julie eta umetako oroitzapenekin zerikusirik ez duen bere aitaren arteko aita-alaba gatazkarekin. Hori guztia elkartzen da obra horretan inozentzia zoriontsuko etaparen amaiera mingarria eta etapa konplexuago baterako trantsitua erakusteko. Derrigortutako ezkon-tza batera behartua ez izateko bere haurtzaroko paisaje izoztuetara ihes egiten duen neska nerabeak onartu beharko du amaitu direla bizimodu tradizionalak eta naturarekiko harmonia, otsoak amaitu ziren bezala, gizarte berri baten garaiturik. Onartu beharko du, orobat, bere aita ere aldaketa horren parte dela eta, areago, hura izan daitekeela otsoak hil dituen, pasadiso galduaren irudia betiko suntsituz.



## ↪ Hizpide ↪

Azken batean, haur eta gazte literatura modernoan nagusi diren joerak –psikologizazioa, distantzia humoristikoa, konposizio metafikzionala– ez ziren abentura tradizionalerako egokienak. Hala ere, abenturak joera horietatik bertatik atera zituen bere burua eraberritu eta bizirauteko osagaiak.

### 2.3. *Magiaren abentura edo abenturaren betiereko magia*

Aurreko hamarkadetan burututako sorkuntza esperimental bizia barretu egin zen 90eko hamarkadan. *Entrequinientos* izeneko hautaketak, arestian aztertutakoaren ondorengoa, hamarkada horren erdialdeko hiru urte bakarrik hartzen ditu, 93tik 96ra, baina garbi erakusten du aldaketa guztiz ikusgarria dela zentzu batzuetan. Alde batetik nabarmentzen hasten da istorio sendoekiko eta gogo esperimentaletatik urrunekiko interesa, nahiz eta aurreko urteetan entseiatutako baliabideetako batzuk egonkortu egiten diren. «Abentura» gisa jotako idazlanak nerabeei zuzentzen zaizkie garbi, estatuko hizkuntzetako originalak nagusitzen dira eta berreskuratu eta ustiatzen dira abenturako azpigenero klasikoak (robinsonen hasierako ereduak izan ezik), haiekin loturako beste formula batzuk gaineratuz, hala nola pikareskarena. Magia, ordea, oraindik ez dago abenturari lotua.

90eko hamarkadak kontserbatzaileagoa izan zen teknikiei dagokienez, eta mekaturatze fenomenoak 80ko hamarkadan eraberritzea neurri handian bultzatu zuten ideologikoei eta hezkuntzazkoei nagusitu zitzaizkien (Colomer, 2001b). Aurreko aldiko sedimentazioak baztertutako generoen berrindartzea aurrerakusten zuen, goraka zohoan merkatuko hutsuneak betetzeko idazle eta editoreen gogoagatik besterik ez bazen ere. Gazte literatura bere mugak zabaltzen saiatu zen «gazte helduen» adinetarantz, ikusentzunezko fikzioaren eta irakurleria zabalarri zuzendutako helduentzako narratibaren arteko mugak desagertzen hasi ziren, eta luzera handiko, irakurgarritasun ezarrekotako formula eta formato erakargarrietako idazlanak produzitzen hasi ziren. Argitalpengintzak fusio enpresarial ugari ezagutu zituen eta, haien ondorioz, pertsonaia berek protagonizatutako epizodioak behar zituen seriekako eta «serieen» produkzioari ekin zitzaion. Azken batean, testuinguru osoa abentura haur eta gazteentzako irakurgai egokia bihurtzeko itxuratuz joan zen.


Hamarkadaren amaieran *Harry Potter* fenomeno edo *Eraztunen jaunaren* bertsio filmikoa

### Erreferentziak

- Cassany, E. (2002): «Apéndice». D. Defoe: *Robinson Crusoe*. Barcelona: Edebé.
- Colomer, T. (2001a): «Una literatura infantil y juvenil de calidad: el proyecto de un siglo». *Boletín de la Institución Libre de Enseñanza*. «Literatura infantil» 42-43, 131-151. Madrid: Fundación Giner de los Ríos.
- Colomer, T. (2001b): «La literatura infantil y juvenil actual: entre la uniformidad y la fragmentación». «*La educación lectora*» Papeles 1, 37-46. Madrid: Fundación Germán Sánchez Ruipérez.
- Colomer, T. (en prensa): *Andar entre libros. La lectura literaria en la escuela*. México: Fondo de Cultura Económica.



## ↻ Hizpide ↻



sortu ziren, entregakako abentura sail luzeen berreskuratzeari laguntzeko. Haiekin batera, abenturarako jokaleku berri bat sortu zen: magiarena. Aldi berean, ikusentzunezko ekoizpenak balizko beste jokaleku bat zabaldu zuen: errealitate birtualarena. Modu askotara ahaltzu sentitzea makinaren laguntzarik gabe, edo gainka egindako errealitateetan barnerratu sentitzea (errealitate birtuala dela, heriotzaz gaindiko mundua dela) izan dira egungo irakurleriaren sakoneko desioei erantzuten zieten fikziozko esperientziak. Hala, egungo argitalpengintzan nagusi diren abenturazko azpigenero mota berriak bultzatu dira.

Baina ez dira bakarrak, noski. Esan dugunez, formula klasikoak berreskuratzen ari dira, kritikak txalotutako itsas abenturaren itzuleraren kasuan bezala, hala nola *Parvati* edo *La expedición del Pacífico*, edo Jaen saria irabazitako sioux gerlarien berragerpen harrigarria. Agerpen handi bera gertatu zaio abenturaren auzoko urruntzat jo dugun beste genero bati: eleberri historikoa. Baina gero eta zailagoa da abenturatik kanpo gordetzea, haren koordenadak ez direlako jada, mendean zehar gertatu

## ↔ Hizpide ↔

den bezala, gazteengana helarazi nahi diren hezkuntza baloreetan oinarritzen, baizik eta abenturarako jokaleku egoki soiltzat eskaintzen du bere burua. Jokaleku horrek, bide batez, historiaren ezagutza eskaintzen du, hori bai, baina balio erantsi horrek berdin funtzionatzen du literatur sistemako zirkulu desberdinetako helduen narratiban gertatzen den eleberrri historikoaren gorakadan, literaturarik elaboratuenetik espainiar kapitain triste zenbaiti buruzko sailetara, edo historiaurreari buruzko ipar-amerikar *best seller* direlakoetara.

### Aipatutako haur eta gazte idazlanak

- Alexandre, M.: *La expedición del Pacífico*. Anaya.
- Canela, M.: *Asperú, joglar embriuxat*. La Galera.
- Carranza, M.: *La nit dels Arutams*. Columna.
- Delgado, F.: *Si pugues al Samarghata*. Laia.
- Duran, T.: *Joanot de Rocacorba*. La Galera.
- Ende, M.: *Amaigabeko istorioa*. Alfaguara-Desclée.
- George, J. C.: *Julie y los lobos*. Alfaguara.
- Gripe, M.: *Kakarraldoak hegaldatu egiten dira iluntzean*. S.M.
- Larrea, M.: *Las andanzas de Kip Parvati*. La Galera.
- Lindgren, A.: *Ronja, la hija del bandolero*. Juventud.
- Lopez Narvaez, C.: *El amigo oculto y los espíritus de la tarde*. Noguer.
- Rayo, E.: *L'alquimia del cor*. La Galera.
- Rodari, G.: *Atalanta*. La Galera.
- Ruiz Zafón, C.: *El príncipe de la niebla*. Edebé.
- Sennell, J.: *Patancrès Xinxolaina*. La Galera.
- Tournier, M.: *Ostirale, edo bizitza basatia*. Erein.
- Vallverdú, J.: *El fill de la pluja d'or*. La Galera.
- Vallverdú, J.: *Silenci, capità!* S.M.
- Verges, O.: *El Superfenomen*. Laia.



## ↪ Hizpide ↪



Litekeena da abentura belaunaldi berriei eskainitako fikzioan luzez geratzeko itzuli izana. Haur literaturan dituen mugak handiak izan arren itzuliko da, eta pantailetako fikzioaren gazte eleberraren eta irakurleria zabaleko nobelaren arteko arlo gero eta iragazkorragoan kokatuko da. Azken alderdiari dagokionez, esan behar da horixe dela haren «betiko» arloa, hantxe sortu baitzen abentura publiko zabalari zuzendua duela mende bat baino gehiago, klasikoen uzta zabala utziz. Baliteke, beraz, masa-kulturako fikziozko produktiorako bide berriek datozen belaunaldietako oroimenean luze iraungo duten abentura berriak sortzea. Edonola ere, begibistakoa da haur eta nerabeei zuzendutako literaturak inola ere ezin duela bazter utzi ezezagunaren arriskuari eta norbere indarren gainditzeari dei egiten dion fikzio mota hori. Uzta berria ona izango ahal da!



# Abenturaren irudi bizia

TERESA DURAN



**B**eldur naiz ondoren datorrena ez ote dagoen pixka bat sinplifikaturik, eskura ditugun denborak zein espazioak ez baitute leku askorik uzten diskurtso ñabarduratsurik egiteko. Are gehiago, ageriko kontraesana baldin badago edukiaren eta azaltzeko moduaren artean: izan ere, testu-hizkerara aldatu behar baitugu hemen, funtsean ikus kulturari dagokion zerbait.

Abentura generoko ilustraziogintzaren ezaugarriak eta bilakaera azaltzea da orain kontua. Zilegi bekigu, beraz, tankera orokorreko axioma batzuk ezartzea, aztertuko dugun lurraldea mugatze aldera.

## Zer ote da abentura-nobela?

Edozein eleberrik bezala, abenturazkoak honakoa kontatzen du: zer gertatu zitzaion nori, non eta noiz. Alde bakarra, «zer gertatu» hori «nork» horrek berak egindakoa izatea. Eta horrek erabat bereizten du ekintza hau, «nork» horrek berak jasandako edo atzemandako beste edozein ekintzatatik. Hau da, abentura-eleberriak kontatzen du zer

## ↪ Hizpide ↪



egin zuen nork, non eta noiz (eta, horrez gain, kasurik askotan, zergatik egin zuen, nola egin zuen eta zer lortu zuen haren bitartez).

Eleberririk klasiko eta unibertsalenak zera azaltzen du: nola aitoren seme argal eta dirugabe bat, gorteko amodioa eta zapalduen defentsa goraiatzaren ziren zalduneria-kontakizun eta gesta-kanta asko irakurri zituela-eta, abentura bila abiatzen den; baina nola, garaiak oso aldatuak direnez, haren balentriak barregarrikeriaren muga geratzen diren. Horixe da *El ingenioso hidalgo Don Quijote de la Mancha* (1605-1615) liburuko istorioa, eta haren baitan bizirik dirau mundua aldatzeko desioak, nahiz eta amets hori argi eta garbi ezinezkoa izan honezkero.

Gizakiak egiten duenaren eta egin dezakeenaren arteko urrutiramendutik, gizarte bati gertatzen zaionaren eta gerta dakiokenaren arteko urrutiramendu horretatik sortu zen, beharbada, eleberri modernoa, *Madame Bovary*-rekin (1857); Bovaryk amets egiten du, Kixoteak bezala, maitemindu eta ilargitan poemak esango dizkion norbaitekin ezkonzearekin, eta harekin printze-printzesentzako moduko geletan vals bat dantzatzearekin, nahiz eta beste hau etxetik ia irteten ez den, nahiz eta beraren helburuak Mantxakoarenak bezain altruistak ez izan.

Kixote eta Bovary arteko erdi bidean, *Robinson Crusoe* (1719) kontakizunean epopeiaren alderdi morala azpimarkatzen da: konkistatzaile bat ageri zaigu, bere ekimen izpiritua eta lanaren maitasuna aztarna ezabaezinetan uzten dituen. Abentura zibilizatzailea, Michel Tournier-ek gogor salatua bere *Vendredi et les limbes du pacifique* (1980) liburuan.

Alde batetik, hiru (edo lau) mugarri hauek bidea ematen dute eleberri modernoaren bilakaeraren ildoak markatzeko eta aztertzeko; baina ez du interes txikiagoa aztertzeak hain eleberri kultu eta kanoniko horiek noren edo zeren ume diren.

*Quijote*-an esaten zaigu: zalduneria-nobela bat, gesta-kanta batetik sortua, eta berori ere poema epiko batetik eratorria. Bidean, kontakizuna prosaiko bihurtzen da, hitzez hitz, hitz lauzkoa.

Tankera homerikoko poema epikoak –ahozko transmisioa errazten zuen errima edo salmodia prosodiko harekin– entzuleen memorian heroi baten goraiatze mitologikoa finkatzera bideraturik zeuden, heroiaren ekintzek xede kolektibo berean txertatzen baitzituzten. Eleberriak, berriz –bakarka idatzi eta irakurritako hitz lau batez–, abentura dakar, zeinean heroi huts-hutsean bera den, komunitateak ez baitio berezko baliorik emango bere leinua edo posizioa dela eta.

Hortik lotu zitekeen eleberria herri-ipuinarekin: ahoz transmitituriko kontakizun hizlaurikoa da, eta honetan heroiak, batez ere maitagarri-ipuinetan, fantasiako izakien laguntza bilatzen du, bakarrik berari eta bere inguru estuenari, «azkenera arte pozez eta zoriontsu bizi izateko» bidea emango dioten helburu amodiozko eta gizartezkoak betetzeko.

## ↪ Hizpide ↪

Honaino narratiba honen azterketa bizkorra: kultua zein herrikoia izan, idatzia izan edo tradiziozkoa, mende luzetako historia du bizkarran, eta irakurle-adinen arteko bereizketarik egiten ez zuen publiko baten beharrak asetzeko sortu zen.

### Gazteentzako abentura-eleberria

XIX. mendean hasi zen jendea belaunaldi-bereizkuntzak egiten bere irakurketetan. Horren jatorrian dago, alde, derrigorrezko eskolaratzea ezarri izana, horrek bidea eman baitzuen gero eta jende maila eta esparru gehiago irakurketara hel zedin; eta, alde ere bai, industri iraultzaren beraren aurrerakuntza batzuk, esate baterako errotatibek kazetak inprimatzeko behar zituzten paper jarraituaren bobinak. Egunkari horietan argitaratzen baitziren, atalka, eleberriak, eta jendeak sutsuki jarraitzen zituen.

Gaztetxo nerabeek bere egin zituzten arbasoen eta nagusien irakurgaiak, *Odisea* eta *Robinson*, *Gulliver* eta *Ivanhoe*, bazterrera utzi gabe hala ere Esopo, Perrault edo Hoffmann-en alegia eta ipuinak. Mendearen erdialdera, plazer beraz murgil zitezkeen Andersen-en irakurgai erromantikoen zein Dickens-enetan, beharbada *Ahatetxo itsusia* (1845) eta *Oliver Twist* (1839) kontakizunek gauza asko dituztelako batera, eta egile biak adiskideak zirelako. Irakurle gaztetxoek aldi berean dastatzen zituzten gesta epikoaren, maitagarri-ipuinaren zein peripezia sentimentalaren plazerak. Nahasketa horretatik sortu zen, dudarik gabe, abentura-eleberria «ad usum pueri» (haurrek erabiltzekoak).

Eta «abentura» hitza (berez dakarren arriskuarien aipamen ezberdinak eginez) sarri bezain ageri-agerian agertzen da XIX. mendearen bigarren erdiko egileek haurrei eskainitako izenburuetan: *Alice's adventures in Wonderland* (1865), *The adventures of Tom Sawyer* (1876), *Le avventure di Pinocchio* (1880) eta abar. Baina, izenburuak hain esplizituak izanik ere, neska-mutiko horiek bizi izandako gorabehera horiek antz gehiago dute gaurko egunean mutiko edo neskatila baten ibilerak, zorion eta zoritxarrak deituko genukeenarekin.

Gaur-gaurkoz abentura-eleberri huts-hutsez ulertzen duguna, hamabi urteko irakurleentzat idatzi zuen, propio, Robert Louis Stevenson-ek: *Treasure Island* (1882), eleberri enblematikoa eta ez sekula



## ↪ Hizpide ↪



behar bezain goraiatua. Alicek eta Pinotxok ezaugarri dituzten fantasia eta liluragarriari ihes eginik; aldi berean ihes eginik Tom Sawyer-ek edo Huckleberry Finn-ek –baita, beharbada, *Little women*-ek (1868) ere– ezaugarri duten kostunbrismo estatu-batuar eta orainaldi erabatekotik ere, Stevenson-en eleberrian gerora generoaren ia elementu tipifikatzaile bihurtuko ziren osagarri batzuk aurkitzen ditugu: arriskua, urrutiramendua, mitoa eta dilema morala, Rider Haggard-en *King Solomon's Mines* (1885) eleberrian ere agertzen diren bezala. Nire ustez, eleberririk, zeinek bere aldetik, ireki zituzten bideetan liburu ugari ibili ziren, XX. mendek oso aurrera egin arte.

Presaka azaldutako honek guztiak bakarrik baliogin digu baldin eta hasieran eleberria definitzeko erabilitako enuntziatuaren parametroen barruan geratzen bagara: «Nork zer egin zuen, non eta noiz». Aditz-modua aldatuz gero, iraganetik baldintzazkora pasatuz, zera izango genuke: «Zer gerta lekiok norbaiti, non, noiz (eta nola)». Eta beste enuntziatu honek antizipazio-eleberriari eman zion bidea, Jules Verne-ren tankerakoa, hala *Le tour du monde en quatre-vingt jours* (1873) nola *De la terre à la lune* (1885), zeinean giltzarria «nola» baita; zientziak zabaldu behar zituen bideetan fede itsua ze-

goen garaian idatziak, gero zientzia-fikzioa deituko zenaren jatorria izan ziren. Eta beste mugarri hau ere –baldintzazko modura oinarritutako esplorazioa, abentura baten asmazioan– oso emankorra gertatu zen, harik eta benetako abentura espazialaren ostean nahikoa geldi geratu zen arte.

Zientziak abenturaren bilakaeran halako biraketa modal baterako aukera eman badigu, hori bezain interesgarri gertatzen da ikustea –gazteentzako abenturatik desbideratzen bagara ere–, zientzia arrazoian oinarriturik egonik, nabardurak egin ahal zaizkiola kontakizun bat zer ote den definitzeko enuntziatuari: «Zer gertatu zitzaion logikoki nori, non eta noiz, eta nola dakit hori guztia», beste genero bat sortuz hala, eleberririk poliziakoarena, zeina ez baitago batera geldirik, eta zeina hasi baitzen, eman dezagun, Edgar Allan Poe-ren *The murders in the rue Morgue*-rekin (1841) eta, batez ere, Sir Arthur Conan Doyle-ren *A study in Scarlet*-ekin (1887). Abentura deduktiboa da hau, ez akziozkoa: heroia ez da zerbait egiten duena, zerbait dakiena baizik.



## ↪ Hizpide ↪

Komenigarri da ohartzea ingurunearen egoerak kontatzerakoan aditz-modua hautatzeko aukera ematen duen unetik bertatik («Nork egin zuen zer», edo «Nork zer egin lezake» edo, are gehiago, «Nork jakin zuen nork egin zuen zer»), literaturaren bilakaera –inpentsan, zenbaitetan– abentura berri eta benetako baten aurrean dago. Azpigenerearen erronkaren aurrean. Jean Ricardou-k esan zuen bezala (1973): «*Eleberria, lehen abentura baten idazketa izana, idazketa baten abentura bilakatu da*».

Egia da enuntziatu hori testuingurutik aterata dagoela, baina bide ematen du aldi berean eleberraren bilakaerako gorabeheren diskurtsoa ixteko, zein abenturaren ilustrazioari buruzkoa hasteko.

### Abentura ilustratzea XIX. mendean

Ilustrazioak ekarpen oinarrizko eta ohikoa egiten ziren liburuei abentura-eleberria agertu baino hainbat mende lehenago ere. Ez da harritzekoa, beraz, gazteentzako lehen abentura-eleberriak ilustraturik agertzea. Robinson Crusoe eta Gulliverren abenturen kasuan ezin hala izan, harik eta Londresko liburu-saltzaile eta inprimatzaile batek –Tabart izenekoa eta haurrentzako argitalpenetan berezitua– 1805ean argitaratu zituen arte. Baina behin bideari ekin eta gero, Robinsonek meritu handiko ilustratzaileak izan zituen: George Cruikshank (1831) edo Browne (1860); eta Gulliver, berriz, Arthur Rackham-ek (1900) edo Willy Pogany-k (1917) erretratatu zuten.

Lehendabiziko ediziotik bertatik izan ziren ilustratuak bai *Alice* (John Tenniel) bai *Pinotxo* (Enrico Mazzanti), bai *Tom Sawyer* (T.W. Williams) eta *Huckleberry Finn* ere (E. W. Kamble).

*Altxor Uhartea*-k liburu gisa izan zuen edizioan ez zeukan mapa ospetsua beste ilustraziorik, nahiz eta argitalpenez argitalpen hainbat egilek marraztu zuten mapa hori: W. Paget (1899), N. C. Wyth (1911), Edmond Dulac (1927) edo Mervin Peake (1949).

*Altxor Uharte*-ko piratek bezala, Salomon erregearen meategiak liburuko heroiak ere, Quatermain-ek, ez zuen aurkitu nork erretrataturik lehen ediziotik urte asko joan ziren arte (William Paget).

Vernerren lanen kasuan, oso arreta berezia jarri zitzairen ilustrazioei, Hetzel editoreak harrotasunez esaten baitzuen garaiko ilustratzaile onenak kontratatzeko gaitasuna zuela. Eta haren edizioak ilustrazioz beterik eta ederki koadernaturik egoten ziren.



## ↪ Hizpide ↪



Abentura-eleberrietako lehen edizioetan agerzten diren grabatuen edertasun-kontzeptua eta trebetasun teknikoa zuzenean datoz arte ederrak zuzentzen dituzten printzipio akademikoetatik. Formalki, ia ez dago alde estilistikorik, liburu ilustratua jaio baino lehenagoko grabatuekin erkatuz gero. Liburuotako grabatuak ez dira –ez dute izan nahi– koadernaketaren kariatz testuan txertatutako estampa batzuk baino.

Badira konstante batzuk, aipatu beharrekoak:

- Plano orokor frontala akzio-eszena askotan
  - Akzio-eszena gertatzen den testuinguru geografikoa irudikatzeko ahalegina.
  - Oso angulazio eta ikuspuntu oinarrizko eta posibilstak.
  - Pertsonaia nagusien erretratua, aukeran gorputz osokoa.
  - Karikatura-adierazpenik ez aurpegi eta keinuetan.
  - Estatizitatea eta nolabaiteko pose efektista, keinua «izoztean». Teatralitatea.
- Aurkariaren asmakuntza (munstroen eta bestelako trepeten kasuan) naturako edo eguneroko elementuak pilatuz.
  - Koloreen gabezia (ezinbestekoa).
  - Umorerik eta karikaturarik ez, derrigor, argumentu motagatik eta gertatzen denari agiri-sinesgarritasuna emateko beharragatik.

Horren bitartez efektu jakin batzuk finkatzea lortzen da, abentura-generoaren eraketan oso efektu maitatuak: urrutiramendua, heroizitate epikoa, mitifikazioa, estrainamendua, arriskua eta moralitatea.

Baina ilustrazio hauen irakurleak, ikusleak, nekez bizi ditu bera bertan balego bezala. Gertaerak bertatik bertara ikustea baino, haien inguruko gutxi gora-beherako bat ematen zaio, gertatutakoaren «oroitzapen» bat eskaintzen zaio; oro har, beste garai batetik, beste egoera batetik datorren dokumentu bat, iragana oso aspaldikoa ez izan arren, edo are etorkizuna bada ere; baina kontua da irudiak ez duela aktualizatzen, ez da orainaldian sortzen. Edo, beste era batera esanda, irakurlea ez dago han: han ilustratzaile bat izan zen. Hori argiago ageri da XIX. mendeko ilustrazioetan XX. mendekoetan baino, oraindik ere gertatzen da ordea. Beste hitz batzuekin: testuak ezartzen du sarrera-kuota. Irakurriz baino ez dira egoki interpretatuko ilustratzaileak eskaintzen dituen irudiak. Are gehiago, XIX. mendeko kasu askotan, ilustrazioa azpiko testu-lerro batez azpimarkatzen da. Irakurleari zantzuak ematen zaizkio, gertatu zena iru-

## ↪ Hizpide ↪

dika dezan, baina ez zaio sartzen uzten (non eta ez duen irakurketarekin ordaintzen, oso luzea eta deskriptiboa bera).

### Abentura ilustratzea XX. mendean:


Eta, sartzen uzten ez digutenez, XX. mendearen hasierako idatzizko abenturaren antzoki garesti eta aparteko hori utzi eta feriara joango gara; han, askoz ahalegin gutxiagorekin askoz plazer gehiago lortuko dugu, feriako barraken artean zinematografo bat izatea fortunatzen bazaigu.

Zinema eta komikia, jatorrian, herri xehearentzako fenomenoak izan ziren, antzerkiaren eta eleberriaren kultura kanonikoan esku hartzen zutenek errukiz begiratuak. Aipa dezagun zinemak komikiak baino askoz lehenago lortu zuela zazpigarren artearen izendapena (komikiari bederatzigarrena izatea egokitu zaio). Baina, apurka-apurka, aurreko mendean aurrera, zinemak eta komikiak gizarte-oihartzun handiagoa lortu zuten abenturaren esparruan, eleberri idatziak sekula lortutakoa baino.


Hasiera batean zinema eta komikia, ia bikiak jaiotze-datari dagokionez, gehienez barregarri eta groteskoak ziren. Zineman, hala izan zen Meliès, Chaplin, Khol eta abarrekin, trukuak egiteko zuten abileziarekin. Eta orduko garai hartan karikaturak, marrazketaren munduak mendeak iragan arte onartu ez zuten modalitatea izanik –Gombrich-en iritzian (1959), XIX. mendea arte ez zen finkatu–, prentsan aurkitu zuen bere lekua. Egunkari horietako batean jaio zen *Yellow Kid* (1896), bere elastikoaren bitartez hitz egiten zuen txorimaloa. Zinema eta komikia hain seriotasun gutxiarekin hartzen dira non erraza baita haurrentzako modukoak, infantilak, kultur baliabide gutxiko jendearentzat direla uste izatea. Eta hala ere...

1905ean, Windsor Mc Cay-k erakutsi zien irakurleei komikiak, barre eragiteko balio izateaz gain, amets egiteko ere balio duela. Horra hor *Little Nemo*, biñetaren laukia hausten, eszenategi bikoitzak erabiltzen, arkitekturak asmatzen. Eta Mc Cay-k berak, 150.000 marrazki erabiliz, animazioko lehen dokumentala egin zuen, 1914an: «Lusitaniaren hondoratzea»; eta horrenbestez erakutsi zuen ez argazkigintzak ez kamerak heldu ezin ziren lekura, ilustrazioa heldu eta baliagarri gertatzen dela. Egile berari zor zaio animazio-marrazkigintzako pertsonaiarik maitagarrienetako bat: *Gertie*, dinosauru-emea. Hura bezalako jeinuek erakusten dute komiki eta animazio-zineman ezer ez dela ez estetikoki ez grafikoki ezinezkoa.

Eta orduan sortu ziren Estatu Batuetan genero eta heroi berriak, horiek ere abenturaren esparruan kokatu beharrekoak. Zinema-estudioak mendebaleko kostaldera eramatean, western generoa sortu zen: zintzo batek, gaizto askok eta zibilizatu beharreko lurralde zabalek osatutako generoa izan ere. Gaur egun politikoki ez-zuzentzat jo dezakegu, baina ez



## ↪ Hizpide ↪



dago ahazterik estatubatuar belaunaldi asko eta askoren abentura eta heroizitate gogoia elikatu duela, presidentearena barne. Komikia ere, haurrak entretenitzeko baliagarri zen abentura grafikoa (*Felix the cat*. Pat Sullivan: 1917) edo etxeko bizimodua satirizatzeko istoriotxoak izatetik (*Bringing up Father*. George Mc Manus, 1913), Edgar Rice Burroughs-en literatur lan bat biñetaren mundura egokitzen igaro zen: *Tarzan of the Apes* (1912). Harold Foster-ek hartu zuen, 1929an, orangutanek bularra emandako nerabe britainiar lekuz kanpoko haren dilema morala zinema-hizkera hollywoodtarrez beteriko abentura etengabea bihurtzeko lana: panoramikoak, alboko travellingak, pikatuak, ikus-eremuaren sakontasuna...

1929. urte horretan bertan *Tintin* jaio zen Bruselan. Hergé-ren kultura. Eta, haren lehen abenturak gustu moral eta grafiko zalantzakoa badu ere, gerokoak finkatuz eta leku nabarmena irekiz joan zen Europako irakurleen artean, batez ere bigarren mundu gerraren ostean. Horrexegatik, hemen utziko dugu haren arrastoa, eta 30ko hamarkadako Estatu Batuetara itzuliko gara.

Garai hartan Estatu Batuak hazten ari zen herrialdea zen. Mende askorik gabeko herrialdea. Bertako herritarrei nortasun-zeinu komun, garbi eta positiboak emango zizkieten gesta-kanta edo poema epiko askorik gabea (*Tom Mix*-en filmak izan edo Curwood eta Jack London-en eleberririk izan). Irakurle xeheek zera eskatzen zuten, norbere erlijio, klase eta egoeraren gainetik talde gisa identifikatzeko bidea emango zuten balentriak eta ekintza gogoangarriak. Eta horiek sortzen dira. Hasieran prentsan agertzen badira ere, laster liburu, *comic book*, album bihurtzen dira. *Flash Gordon* (Alex Raymond, 1934), *Superman* (Gerry Siegel, 1938), *Batman* (Bob Kane. 1939) eta besteren abenturak dira, «amets amerikarra» beste inork baino hobeto betetzen duten pertsonaiak. Haien itxura kementsu eta gihartsuak, haien trazu indartsu eta kontrastatuak —ongia gaizkiaren aurkako bortxazko borrokan oinarritutako beren ideologiarekin hain ondo ezkontzen dena—, beren jatorri zalantzazkoak... eta, batez ere, beren naturaz gaindiko balentriek kontinente berriak hain beharrezko zituen Herkules, Amadis edo Cid Campeador tankerakoak bihurtzen dituzte. Beharbada *The Spirit* jeniala jo daiteke, Will Eisner (1945) jenialak sortua, bere umore apurra eta maisutasun teknika handiarekin, haien Kixotea baino gehiago, haien On Alonso Quijano Ona, zentzutasunetik hainbesteko betekada gerrazalearen aurrean erreakzionatzen...

Nolanahi ere, super-heroi hauen abenturek arrakasta itzela izan zuten. Beren legeak ezarri zituzten, ez bakarrik komikiak zer izan behar duen, baita abentura batetik espero daitekeena ere:

- Balentriarik handienak eta sinestezinenak egiteko gai den pertsonaia protagonista.



## ↪ Hizpide ↪

- Baliorik tradiziozkoen defendatzailea (emeak eta bestelako izaki babesgabeak defendatzen dituen arrarena barne)
- Etengabe libre egote mesianikoa eragotziko ez dion famili edo lan konpromisorik gabeko independentea, gizateria osoa salbatzen aritzeko.
- Gizarte inguru ahula, bere burua antolatzeko edo haren laguntzarik gabe bide zuzenean jartzeko ezgauza .
- Geografia edo inguru espazial mehatxagarria, arrotza eta erraz mitifikatzekoa delako.
- Garai zehaztugabe bat, ahal dela etorkizunez ernai, eta erraz mitifikatzekoa hori ere.
- Laguntzaile gutxi batzuk, aukeratuak eta saiatuak.
- Haren tamaina eta botere bereko aurkariak (ahal dela, bat bakarra, jarraitzaile askorekin), galtzaile txarrak eta Fenix hegaztiaren modura, behin eta berriz berpizteko prest.
- Eta, garrantzizkoena: akzioa, akzio asko, ugari (borroka egiten denean, ez dago leku askorik ikerketa eta gogoetarako).

Abentura-mota honek itsasoz bestaldera jauzi egin eta imitazio asko egin zen bai Ingalaterran bai Espainian (*Capitán Trueno*. Mora-Ambrosio, 1956). Gaur egun Hollywood haietan oinarritzen da, edo antzeko gidoietan, bere azken super-ekoizpenak egiteko.

Haren aldean, Hergé, Uderzo edo Morris-en –hurrenez hurren– Tin-tin, Asterix (1959) edo Lucky Luke-ren (1946) abenturetako linea garbiak kontrapisuarena egiten du oso modu europarrean. Pertsonaia horiek ez dute naturaz gaindiko botere askorik (Obelix izan ezik, hura druidaren eltzean erori baitzen txikitari), eta haiengan gehiago balio du buru-argitasunak manikeismoak baino. Pentsatu egiten dute. Eta, horrez gain, ondo zuztaturik daude sozialki zein geografikoki (Moulinsart-en, bretoi herrixka guztiz erresistente eta nazionalista batean, edo Western historikoki dokumentatu batean). Haien abenturak, epikoak gabe, barregariak dira. Anti-heroiak dira. Haurrentzakoak.

Epikogoa, baina anti-heroikoa aldi berean, helduagoa, eta ausarki abenturazalea, *Corto Maltese* (Hugo Pratt, 1972) gai izan zen abentura klasikoa aldi berean era literarioan eta grafikoan berritzeko eta bultzada nabarmena emateko. Eta are larridura-sortzaileago, are posmodernoago eta berdin bikaina da Moebius maisuaren (1979) *Arsach*-en mundua.

Mundu horrek asko zor zion jada *manga*-ri. Eta mangarentzat ere iturri oparoa da mundu hori. Manga mestizoa baita, hain mestizoa non nahasia ere gerta daiteke. Gaur egun manga existituko ez balitz, asmatu egin beharko litzateke. Mangan (Masami Kurumada, Satoshi Utsushihara edo Hiroyuki Uatane) heroia –edo heroi neska– numetu egin da; ez,



## ⇨ Hizpide ⇨



ordea, haien aurkari eta eszenategi basati, gihartsu, robot-antzeko, zientzia-fikziozkoak. Guztia zehazgabetasunean gertatzen da. Ez da azaltzen *non*, ez da azaltzen *noiz*. Ez da ondo jakiten nor den nor. Ezta nor edo zer bihur daitekeen nor edo zer. Erotismoa dago, sexua baino gehiago. Ez dago barrerik, ez dago kausarik, borroka, aldakuntza eta helburuak ezartzen dituen jakituria antzinako eta estatiko bat baino ez. Ahalmena eta ezintasuna bateratsu doaz. Eta telebista, haren eragin eta estrategiak nagusitzen dira. Manga abentura posmoderno da, zibernetikoa, areago da estetika argumentua baino.

Arestian esan dugun bezala, genero bat ilustratzeko bidaia-zirriborro hau abentura baten idazketa izatetik idazketa baten, grafia baten abentura izatera igaro da.

Honekin guztiarekin zera baieztatu nahi dugu, XX. mendean aurrera abentura eta beraren irakurleak lekuz aldatu direla testutik irudira doan ibilbidean. Ez da agortu abentura-egarria, egarria asetzeko iturria aldatu dela besterik ez. Zinemak, bere efektu bereziekin, eta komikiak, bere berezitasun narratiboekin, abentura-izpirituaren transmisore eraginkorrak direla erakutsi dute.

### Abenturaren irudiari buruzko oharrak

Hemendik aurrera datorrenak ez dauka zentzurik baldin eta ez bada behingoz onartzen honako axioma hau: ilustratzea narratzea da, eta ilustratzaile edo irudi-egilea narratzailea da.

Narratzeko modu hau ahozko edo idatzizko narrazioarekin kontrajar daiteke, erabilitako bitarteko teknikoagatik batez ere. Komunikabide ikusizkoa da funtsean eta, ulertua izateko, ez du alde aurretik deskodetze fonetikorik behar.

XXI. mendean gauza jakina da pertsonok lengoia bat baino gehiago izan eta erabiltzen dugula. Horrek Barbieri-ren (1991) ideia batera garamatza: lengoaiak ez dira huts-hutsean nahi duguna komunikatzeko

*tresnak*; aldi berean, eta nagusiki, inguratzen gaituzten *giroak* dira eta, neurri handi batean, baldintzatu egiten dute ez bakarrik komunikatu *ahal duguna*, ezpada baita komunikatu *nahi duguna* ere. Zer alde dagoen komunikazio *tresna* baten eta komunikazio *giro* baten artean? Aldea zera da, tresna erabili egiten dela, eta giroan, berriz, bizi egiten garela. Ideia guztiak lengoia batean sortzen dira. Gure izatearen lengoia askotarikoen batean. Ideia oro formulatzen da une horretan bizi garen lengoiairen barrutik, lengoiaiatik eta lengoiairen bitartez.

Hitzen bidez pentsatzen badugu, deskribapenak eta arrazoiak adierazi ahal izango ditugu, baina kosta egingo zaigu trumoi baten hotsa, arrosa baten lurrina edo sagar baten distira bezalako gauzak aurkitu eta azaltzea. Irudien bitartez pentsatzen badugu, berriz, kolore baten dirdira adierazi

## ↪ Hizpide ↪

ahal izango dugu beharbada, ez ordea klarinete baten soinu zehatza, ezta inondik ere usainak... Lengoaia batekin identifikatzen bagara, horrek osatzen du gure unibertsoa eta zehazten gure mugak. Lengoaia-giro horiek *ekosistema* gisara irudika ditzakegu, zein bere arau eta ezau-garri berezkoekin. Baina arau batzuk komunak dira haietako askorentzat, eta beste batzuk guztientzat, eta badira halaber bi ekosistema edo gehiagoren bitarteko esparruak, bien arauekin jokatzeke aukera ematen dutenak.

Mugaldeko esparru horietako bat abenturaren narrazioan aurki dezakegu.

Abentura akzioan oinarrituta dago.

- Hitzen lengoaian, akzioa aditzen kargu doa: korri egin, joan, etorri, jauzi egin, hil, nabigatu... Hala ere, adjektiboak edo paragrafo deskriptiboak behar ditu, *nork*, *non* eta *noiz* zehazteko.
- Irudien lengoian, *nork*, *non* eta askotan *noiz* ere *begien bistakoak* izaten dira (apropos erabiltzen dut, noski, esamolde hori).
- Zinemak, komikiak eta ilustrazioak ezin dute bazter utzi pertsonaien izaera edo itxura. Ez dute nolakoak diren deskribatu beharrik, erakutsi egiten dizkigute besterik gabe: handiak, txikiak, ilehoriak, burusoilak, tripaundiak, beltzak, itsusiak, gazteak...
- Ilustratzailea trebea bada, irudien lengoian ekintza-aditzak argiro irudikaturik egoten dira, nahiz eta alde handiak dauden, batetik, ilustrazio edo komikiaren irudi estatikoaren eta, bestetik, zinemaren irudi mugikariaren artean, zinema horixe baita hain zuzen ere: irudiak mugimenduan.
- Baina mundu honetako ekintza guztiek zentzugabeak dirudite, hausnarketarik, zergatirik, gogoetarik egon ezean. Horixe da ilustraziorako zailena, eta horixe ez du lortzen –hitzetan jarri ezean, ezta offeko ahots batekin ere– zinemak.
- Hausnarketa edo gogoetak bolatxotan kodifikatutako trikimailu bat behar izan du komikian.
- Literatura garaile ateratzen da irakurlearen gogo-barneratzeari dagokionez.
- Literatur abenturak gertakari-hurrenkera bat kontatzen du, heroiarentzat eta, bidenabar, irakurlearentzat aldeko amaiera dakarrena.
- Zinemak eta komikiak bidea ematen dute gertakari-hurrenkera hori argi eta garbi ikusteko. Ez dugu behar inork kontatzerik, hantxe *gaude* hasieratik amaiera arte.
- Ilustrazioa ez da inondik ere hain jarraitua. Gertakari *batzuen* bat-bateko argazkiak ematen dizkigu. Baina nekez kontatzen ditu gertakari horien *hurrenkera*.



## ↪ Hizpide ↪

### Bibliografia

BARBIERI, Daniele (1991): *Los lenguajes del cómic*. Bartzelona: Paidós (Instrumentos; 10), 1998.

EISNER, Will (1998): *La narración gráfica*. Bartzelona: Norma còmics, 2003

FEIFFER, Jules (2003): *The great comic book heroes*. Seattle: Fantagraphics Books.

GOMBRICH, E.H. (1999): *Los usos de las imágenes*. Madrid: Debate, 2003

LLUCH, Gemma (2003): *Análisis de narrativas infantiles y juveniles*. Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha (Arcadia; 7)

MOLITERNI, MELLOTT, DENI (1996): *Les aventures de la BD*. Paris: Gallimard (Découvertes Littérature)

PALLOTTINO, Paola (1988): *Storia dell'illustrazione italiana*. Bologna: Zanichelli

REY, Pierre Louis (1992): *Le roman*. Paris: Hachette (Contours Littéraires).

RICARDOU, Jean (1973): *Le Nouveau roman*. Paris: Seuil.

- Zinemak eta komikiak badakite jende gehiena gertatutakoaren partaide egiten.
- Ilustrazioak aukera ematen du, noizbehinka, gertatutakoaren partaide egiteko bai testuaren irakurlea bai, proportzioan, jendearen gutxiengo bati.
- Denbora aurrera, ilustraziorik gabeko eleberriak entzutea galdu du. Berpiztu egiten da filmatzen dutenean.

Abentura literatur generoa baldin bada, horrek esan du diskurtso propioa daukala liburuaren baitan. Orain zehaztuko duguna liburuari dago-kio bakarrik:

- Hitzean oinarrituriko diskurtsoa da, eleberriaren kasuan.
- Ilustrazioan, ikus diskurtsoa da, hitzik gabekoa: kontakizuna eszenifikatu, argiztatu eta aktanteen *casting*-a egiten du.
- Komikian, ikus diskurtsoa da, baina ilustrazioaren antzeko eszenaratzea emateaz gain, hitza du, baita intonazio eta soinua ere, bere itxura tipografikoan.
- Eleberriak abentura kontatzeko forma konplexu eta ñabarduratsuetarako bidea ematen du.
- Ilustrazioa forma literarioa baino adierazkorragoa gerta daiteke abentura kontatzeko modu gisa.
- Komikiak, oro har, hari narratibo soilagoa eta ñabardura gutxiagokoa eskatzen du.
- Komikian, mangaren kasuan bezala, piroteknia bisuala eta goi mailako teknologia trazuak nagusi direnean, oso argumentu xumea izaten da ondorioa.

Nolanahi ere, soilak edo konplexuak, idatziak edo marraztuak, pantailan edo biñetan, luzerako dugu abentura gu guztiok, irakurleok, besaulkian kuxkurturik sekula iritsiko ez ditugun balentriak eta munduak gurtzen ditugun izaki baketsuok.





↪ Hizpide ↪

# (Aitaren) Etxean neukan Yukongo urre guztia

AINGERU EPALTZA



Utzidazue Saioaz mintzatzera. Saioak 14 urte ditu. Ile-motza da, gaztainakara. Belarri batean hiru belarritako eramaten ditu, eta bi bertzean. Saioa amarekin eta ahizpa Iratirekin bizi da. Irati hiru urte gazteagoa da, pieza ederra. Zenbaitetan, hura gabe ez litzatekeela biziko pentsatzen du Saioak. Bertzetan, bizitzan gertatu zaion zoritxarrik handiena iruditzen zaio Irati.

Tira, hori iaz arte izan zen. Aurten, DBHko bigarren maila bukatzeaz gain, zoritxarretan lizentziatu delakoan dago Saioa, eta ez hain zuzen ere ahizparen erruz. Pentsa emazue. Bide malkar eta aldapatsua egin zaio Matematika eta Gizarte gaitza. Unai, 4. B-ko mutil galant horrek, autobusera bi geraleku haratago igotzen denak, begiratu ere ez dio egin ikasturte osoan. Bere bihotzeko lagun Leirerekin lau hilabete egin ditu hitzik trukatu gabe, haserre. Aita etxetik joan zen, lehengo urtarrilean, eta ama, berez jasanezina bada, are jasanezinago dabil handik goiti. Hori guztia aski ez izan, eta oportretan doa gaur Saioa.

## ↪ Hizpide ↪

Aspalditik zekien uztaila aitarekin egin behar zutela. Aitak alde egin zuen egun berean esplikatu zien bi ahizpei gauzak nolakoak izanen ziren handik goiti:

—Dena hitzartua dugu amak eta biok: astelehen, asteazken eta ortzegun arratsaldeetan ni egonen naiz zuekin, eta berdin bi asteburutik behin. Aste Sainduan, igandea arte harekin tokatzen zaizue, eta nirekin, berriz, Pazko astea. Maiatzaren leheneko zubian...

Eromena. Saioak eta Iratik, ez nahasteko, egutegi bana eramaten dute orain karpetan, apunteekin eta ariketen fotokopiekin batean. Hartan, gorritz agertzen dira aitarekin eman beharreko egunak eta horiz amarekikoak. Lehenbiziko egunetan latza izan zen. Gero, latzagoa.

—Hau Biki duzue.

Horrela presentatu zien aitak bere neskalaguna. Aita baino puskaz gazteagoa zen; ile beltz kizkurra zuen, eta kamiseta motzak haren xilkoa erakusten zuen —haren zilborra— urrezko uzta batez apaindua. Saioa eta Irati hain gelditu ziren txunditurik, ez baitzioten eragotzi ahal izan ezpainak beren masailetara hurbildu eta musu ematea.

—Uste dut lagun handiak izanen garela, bai horixe.

Neskatikoek ez zuten halako usterik hartu.

Bi ahizpek Bikiren ezagutza egin zuten egunetan, Saioa eman-emana zegoen liburu baten irakurketara. Motxilar eramaten zuen; gisa hartara, edozein hutsarte profitatzen ahal zuen, liburua ireki eta haren orrialdeetan murgiltzeko. Ez zen, bistan da, institutuan manatua. Horiek motzak izaten dira, bertzenaz gelako mutilak —mutilak beti— protestaka hasten baitira, eta hau halako hiru zen ikasturtean behartuta irentsi behar duten liburu luzeenaren aldean. Bertzalde, ez zen irakurtzen zuen lehen aldia. Idazle beraren bertze hiru nobela gehiago pasatu dira Saioaren esku-begietatik —denak pertsonaia nagusi berarekin— eta guztiekin piztu zaio berriz ere leitu beharra, hain liluragarriak egin baitzaizkio. Hain zuzen ere, liburu hauekin gertatu zen, Saioarenean, inork espero ez zuen mirari tiki-a: Irati bera zaletu zen haien protagonistarekin, hainbertzeraino zaletu non 300, 400, 500 eta are 600 orrialdeko liburukoteak irakurtzeko gai izan baitzen, etxeko guztiak aho zabalik utzirik. Egizue kontu Iratiz ari naizela, hau da, ordenagailu-jokoen erreginaz, telemandoaren printzesaz, nintendoaren txapeldunaz.

Saioak, gainera, bazuen bertze arrazoi bat liburu horren berrirakurketari lotzeko. Ez daki kasualitate hutsa izan den, edo bere berri izan ote zuen Hizkuntza eta Literatura irakasleak. Kontua da, aurten, institutuan agindu dizkieten liburu guzti-guztietan, pertsonaia nagusiak Saioaren adintsuko mutil edo neskek direla, ikaragarri bizi zoritxarrekoa dutenak. Liburu horietan beti egoten da aita bat, edo ama bat, urtarrileko egun



## ↪ Hizpide ↪

hotz batean, semea edo alaba bere aurrean jarrarazi eta honelako zerbait erraten diona: «gizon-emakumeen arteko maitasuna, pizten den bezalaxe, itzali egiten da batzuetan...». Protagonistek maite dituzten neska edo mutikoek inoiz ez diete kasu mikorik egiten. Ikasketak zigor garratza baizik ez dira izaten haiendako. Eta nola ez, beren lagun minekin liskartzen dira gehien-gehienetan, lagunik batere izatekotan. Liburuaren erdia ohe gainean etzanda edo etxeko leihotik begira egiten dute, malkotan edota gogoeta beltz-ilunetan, inoiz etortzen ez den zerbaiten esperoan. Musika ezagunegia Saioarendako. Ez zen hori irakurri nahi zuena. Hari inork ez zion esplikatu behar bizia nolakoa den; tamalez, ederki jabetua zen Sanfermin bederatzi egun baizik ez direla urtean.



Harry, hau da, Saioak negu latz honetan berrirakurketarako hautatu duen liburuko mutila, ez da gisa horretakoa. Harryk ere etxeko egoera ez du inbidiagarria. Umezurtza da, eta maite ez duten osaba-izebekin bizi da. Baina mutiko hau berezia da. Mutiko hau azti familia baten ondorengoa da eta ikasketak ikastetxe ospetsu batean egiten ditu, azti izateko ikasketak, jakina. Han ez dute ez argindarrik ez ordenagailurik, ez telebistarik ez musika aparataturik. Baina ikastetxe horretan magia egiten ikasten dute, edo, zuzenago, nork bere barrenean duen magia aterarazten. Han Harryk lagunak ditu, izugarri lagun onak, baita lagun ez direnak ere, eta etsaiak, mota guztietako etsaiak. Eta mutiko horrek –liburuz liburu hazten eta haztearekin korapilatzen doan mutiko horrek– gaizkia borrokatzen du, eta gaizkiaren kontrako borroka egoera eta trantze amestu ezinak biziarazten dizkio, pertsonaia amestu ezinak ezagutarazten, modu amestu ezinean ikasazten.

Zerk eta nobela zoragarri horrek eman zion abia Bikirekin izandako lehen muturraldiari.

Larunbat arratsalde batean, aitarenean zirela, Saioak motxilatik atera zuen liburua. Emakumeak, orduan, interesatu itxuran hurbildu zitzaion, zer irakurtzen ari zen jakin nahi-eta. Neskatikoak liburuaren azala erakutsi zion, gogo handirik gabe.

—Originalagoa zinela uste nuen...

Horiek espantuak! Kultur anglo-saxoiaren izaera menperatzailea, haurren heziketari deus ere aportatzen ez dion literatura, errealitatearen ulermena sustatu beharrean iheskeria bulkatzen duten idazlanak, liburua kontsumo-produktu gisa baizik ulertzen ez duten operazio komertzial erraldoiak, balio literarioak eta salmenta kopurua nahasteak ekartzen dituen okerrak... Saioa harrituak ez zituen den-denak ulertu, baina musika ezaguna zitzaion. Aitari antzeko arrazoiak aditu zizkion, sail horre-



tako lehenbiziko alea etxeratu zuelarik. Gero, gizona ohartu zen Irati gazteak nolako lehiaz irensten zituen Harry delakoaren liburuak, eta pitokeriak errateko gogoia itzali zitzaion.

Larunbateko arratsalde hartan, beraz, Saioak ez zion arraposturik eman Bikiri. Isilik egon zen hark bukatu arte eta, gero, irakurtzeari lotu zitzaion, deus aditu ez balu bezala. Gauaz, berriz, aitaren apartamentu nimiñoiko salan bi aste-burutik behin bere ahizparekin partekatzen duen sofa-ohlean, Saioa, irudimenaren laguntza soilarekin, azti bilakatu zen.

Zenbait orduz, bere barreneko magia atera zuen kanpora, bere ingurua –institutua, lagunak, aita-amak, Biki bera– bere nahietara makurtarazteko. Zenbait orduz, gaizkiaren kontrako batailari lotu zitzaion, eta garaile atera zen, gaizkiak bizirik jarraitzen zuela jakin arren. Biharamunean, hobeki atzarri zen: bere inguruko gaitz tiki eta handiei buru ematen ikasteko gai izan litekeela sentitu zuen lehen aldiz ikasturte latz horretan.

Bada, dena dela, Saioak uxatu ahal izan ez duen gaitza. Aita apartamentura aldatu zenetik asteburua tortura ankerra bilakatu zaio, bitik batean. Larunbatak ez dira hain makurrak izaten; normalean amatxirenean bazkaltzen dute, aitaren amarenean, eta hor lehengusuak izaten dira gehienetan, osaba-izebekin. Alabaina larunbatak igandea zor, eta igandean Saioak infernua izaten du esperoan.

Saioari galdetuko baliote zein diren aitarengan gorroto dituen zerak, inondik ere bi emanen lituzke lehen-lehenik: bata, etxetik joan denetik ezker belarrarian ezarri duen belarritako barregarria; bertzea, mendia. Urte parrasta batean, aitaren mendizaletasunak kateaturik eduki zuen familia osoa, asteburuz asteburu, bero ala hotz, euri nahiz elur, harik eta haren emazteak eta haren bi alabek planto egin zioten arte. Saioak 12 urte zituen orduan, eta lepo gainetik uztarri pisu bat kendu baliote bezala ditu gogoan igande menditar horiek bukatu ziren denborak. Aitak bere kasa jarraitu zuen mendira joaten. Nonbait, halakoren batean ezagutu zuen Biki.

Aita-amen bereizketarekin batean, itzuli dira, kondena erantsi bat bezala, lehenagoko igande izugarri horiek. Orain, aitaren neskalaguna joaten da buru eta aita ondotik. Gibelean, ezin segituz, bi neskatikoak eztabaida isilean aritzen dira, Harry bezalako aztiak izanez gero, Biki zer bilakatuko ote luketen: sugandila, hapo, arratoi, kakamokordo edo zabor-meta. Gau batez, Iratiri gogoratu zitzaion arao edo konjuro bat idaztea, oinaztura batek, alegia, tximista batek, Biki jo eta bertan txikitu zezan. Ez zen halakorik gertatu, baina, bederen, gogotik egin zuten irri.

Saioaren azken zoritxarra duela hilabete bat abiatu zen. Aitarekin ze-



## ↪ Hizpide ↪

goen, Iratirekin batean. Zinetik atera berriak ziren eta lau minutu iragan-da iduri zuen solasgai guztiak akituak zirela haien artean. Maiz gertatzen zaie aitarekin daudenean. Amarekin ez; amarekin muturrez egonda ere zerukoez eta lurrekoez mintza daitezke, inork jarioa galdu gabe. Aitak orduan aipatu zien bidaiarena. Bidaia bat uztailean, berarekin tokatzen zaien hilean. Saioari hegaz hasi zitzaion gogoan.

—Hemendik urrun? Atzerrira? —galdegin zuen.

—Jakina —aitak.

Hurrengo asteetan, aspaldi horretako zenbait liburu ekarri zituen gogora. Sally Lockhart emakume detektibearen eskutik, Londres biktoriarriarrera bidaiatua zen Saioa. Molly Moon neska hipnotizatzailearekin batean, New Yorkeko karrika eta etorbide luzeak ezagutuak zituen. Alexander Coldenen eta Nadia Santosen ibilera ikaragarriei esker, Amazonas ibaietako oihanak gordetzen dituen sekretuen jabe egina zen. Amazonas eta New York urrunxko daude, beharbada, baina Londres? Zergatik ez Londres? Bere gelan berean bada neska-mutiko bat baino gehiago hara joana.

Iratik ez zuen nahi izan. Irati izen-emana zegoen kostalde hurbileko udaleku baterako. Taldeko lagun gehienek han zuten hitzordua, uztaile-ren lehen hamabostaldian. Piragua, antzerkia, gaupasak... Ez ziren, ez, aspertzekoak. Gainera, Iratik ez zekien nor ziren Sally Lockhart eta Molly Moon. Are gutiago Alexander Colden eta Nadia Santos. Londres, New York eta Amazonia bera, denak bost, ordaina lagunekin bi aste pasatzeari uko egitea bazen. Saioak gupidaz begiratzen zion bere ahizpa gazteari, ezpain artean gordeta buruan zebilkion galdera: «zergatik zara hain kirtena?».

Amets guztiak antzarak ferratzera joan ziren duela bi aste. Aitari kontuetue kale egiten zioten. Bereizketaren ondorioz, gizonaren patrikak ez omen zituen bere unerik oparoenak bizi. Dirurik ez, bidaia luzerik ez. Saioa zur eta lur zegoen, malakoak ezin atxikirik.

—Orduan?

—Trankil, ez gara hemen geldituko.

Saioa ez zegoen trankil. Aita ederki ezagutzen du. Ez da inoiz fidagarria izan, eta are gutiago ezker belarrian belarritako barregarri hori paratu duenetik. Neskak ezinegonean egin zituen hurrengo egunak. Oporretan zegoen jadanik, eta lagunak alde egiten hasiak ziren, beren gurasoen herrietara, kostaldera edo, bakan batzuk, Saioak amestu bezalako herri urrunetara. Gero eta bakarrago, neskatikoak irakurketan bilatu zuen babeslekua: inolako historia liburutan agertzen ez diren garai zaharrak, sorginak eta zaldunak, madarikazioak eta ezpaten distira, itsa-



## ↪ Hizpide ↪

so zabalak eta uharte urrunak. Irla batera ez bazen, bederen itsas-herri batera joatea baino gutiagorik ez zuen espero.

Atzo, aitak deitu zuen telefonoz.

—Dena prest biharko?

—Den-dena: kamisetak, galtza motzak, sandaliak, bikinia, toalla, txano bat eguzkiak sobera jotzen ote duen... Amak dio hobe dudala jertseia ere eramatea, baina ez dakit merezi duen.

—Eramazu. Eta forro polarra ere bai. Eta anoraka, badaezpada ere. Eta mendi-botak, bistan da. Eta...

Saioak bere ameskaiztorik gaiztoenean ere ez zuen halakorik amestuko. Doi-doi galdetu ahal izan zuen:

—Nora goaz?

—Piriniotara, jakina.

Goizeko zortzietan pasatu da aita neskaren bila. Saioa hain abaildurik eta aurpegi-txarturik ikusita, bere burua zuritzera abiatu da gizona:

—Urte gogor hau pasata egun lasai batzuk behar ditut, eta non Pirinioetan baino lasaiago? Gainera, Bikik...

—Bikik?

Mundua gainera etorri zaio. Zozoa bai bera! Nola ez zaio lehenago gogoratu Biki bidaiako paketea sartua zela?

—Apartamentuan gelditu da, gure esperoan.

Gehiagorik ezin jasanez, Saioak disc-mana atera eta CD bat sartu du. Avril Lavigne: «Complicated». Bai, oso *complicated* gertatzen ari zaio dena... Ez da autotik atera aitarenera iristean. Biki espaloian dago, traste pila baten erdian: motxilak, poltsak, mendirako makilak, soka bat... Soka bat? Zertarako arraio nahi du emakume horrek soka bat? Saioak begiak itxi ditu, kanpora ateratzeko keinurik ere egin gabe. Ez du deus ikusi nahi, deus sentitu nahi, deus pentsatu nahi. Horretarako musika laguntzailerik hoberena da, musika... eta irakurtzeko zer bait. Baina oraintxe oroitu da anoraka poltsan sartu beharrez atera duela gaurkoz bereziki gordetako liburua: Sally Lockart-en ikerketa txundigarrien bigarren emanaldia. Gero, ohe gainean gelditu zaio ahantzia. Bere zorte txarra madarikatu du. Mendekuz, helmugara ailegatzean aitari erosaraziko dizkion hiru-lau liburuak erabili ditu gogoan. Aita ez da arrunt esku-zabala, baina inoiz ez dio libururik ukatu.

Tupustean, ohartu da mendira doazela eta mendian ez dela liburu-dendarik izaten. Izerdi zuri bat lasterka hasi zaio kopetan beheiti. Hamar egun irakurtzekorik batere gabe! Tarrapatana atera da autotik.

—Aita, giltza!

—Zeeer?

—Etxeko giltza.

Hamabi segundo geroago, ez gehiagorik, apartamentuko sa-



## ↪ Hizpide ↪

lan da, apalak arakatzen. Minutu bat ere ez du behar lehenagotik zekiena baieztatzeko: hemen ez du bere gustuko libururik aurkituko. Etsia, aitaren autoko klaxona aditu du, kanpotik deika. Jadanik joatekotan dagoela, goi-goiko apaletako liburuei ohartu zaie. Haien azal zimurrak salatzen duenez, aitaren gazte denboretakoak dira: berarekin garraiatzen ditu etxez etxe, gaztetako oroitzapenak orri horitu horietan itsatsiak baleude bezala. Halakoren bat aholkatu izan dio noizbait Saioari, baina inoiz ez du eskaintza ontzat hartu. Orain bertze aukerarik ez du. Lehen hirurak harrapatu ditu, izenburuetan erreparatu ere gabe. Eskuetan daramatzala agertu da auto ondora. Berandu ohartu da Biki azalei begira gelditu zaiela.

—Hara! Ez zenuen ez hemengo ez oraingo idazleen lanik hautatzen ahal?

Erantzun gabe, barnean sartu eta disc-mana jarri du berriz. Alicia Keys. «Troubles». Hauek bai *troubleak* pasaratzen dizkietenak!

Hurrengo egunak Saioaren aurreikuspen beltzenen neurrikoak izan dira. Bikik egunez egun prestatua ekarri du programa, eta ez du barkatzen. Atzarri, goizik egin behar da, inoiz ez zazpi eta erdiak baino beranduago. Gosaldu, berriz, ausarki, Saioak esnatu berritan gogo zipitzik izaten ez badu ere. Handik autora, eta kilometro batzuk egin ondoan hasten da zigor saioa. Gaur badakit zer mendi-kaskotara eta bihar ez dakit zer lakutara. Haraino, maldaz malda eta malkarrez malkar, eguzki gupidagabearen azpian. Saioa, izerditan blai, zangoak deusetarako ez dituela eta kasik negarrez burutzen ohi du ibilaldia, beti aitaren ondotik eta beti Biki baino hogoie minutu geroago.

—Ailegatu zara, behintzat —emakumearen ohiko agurra.

Tratu txarrek segida izaten dute gero, inguruko gailurren kontenplazioarekin eta haren izenen errosarioarekin: Aneto, Maladeta, Perdiguero, Posets... Helmuga lakua baldin bada, sufrikarioa halako bi izaten da: haiei zer gogoratuko, eta arropa guztiak erantztea eta ur hormatuan murgiltzea. Larrugorritan elkarri zipriztinka ari diren bitartean, Saioak ero batzuei bezala begiratzen die ur-ertzetik. Halako ergelkeriak egiteko aitzak leloturik egon behar du, eta lelotze horren erantzulea bere ondoan dabilen emakumea baizik ez da izaten ahal. Saioa seriooki pentsatzen hasia da Bikik ez ote duen edabe bitxiren bat erabili aita sorgintzeko, liburuetan bezala. Amak bi egunetik behin deitzen du. Dominikar Errepublikan dago, lagun batzuekin, eta pazientzia aholkatzen dio. Iratiri idatzi nahi izan dio, baina inon ez du aurkitu mendi argazkirik erakusten ez duen postalik.

Saioaren adineko neska-mutil bakarrik ere ez da kanpinean. Denak gazteagoak dira, beren aita-amekin etorriak, edo lau-bortz urte zaharra-goak, gutienez, jadanik beren kasa dabiltzanak. Arratsaldeetan, ibilaldi-





tik goizik itzultzen badira, Saioa igerileku tikiaren ondoko terrazaren abaroan egoten da, afaria bitarte. Eguneko unerik goxoena izaten da, mendiko nekeak pixka bat ahanzteko parada ematen diona. Aulki bat eta mahai bat bereganatuta, freskagarriren bat eskatzen du. Laranja-koa izan zen lehen egunean, eta coca-cola Bikiri edari horren kontra purrustada aspergarria entzun zionez geroztik. Kaskoak belarrietara ongi itsatsita eta liburuak eskuan, ez da hortik mugituko igerilekura sar-aterak egiteko ez bada.

Italiar batek idatzitako nobelak erabili ditu lehen egunean. Kontrazalean irakurri duenez, idazlea ez zen sekulan santan Italiatik kanpora atera, eta hala ere bere izkribu guztiak lekurik urrunetan kokatu zituen: Ameriketara, Asian, Afrikan... Bi dira, bata bertzearen jarraipen, Saioaren eskuetara iritsitakoak, baina gehiago omen dira sail berekoak. Istorioaren protagonistari Malaysiako Tigrea erraten diote, eta pirata da, Mompracen izeneko uharte baten jabea. Lehen kapitulurako, neskatikoa miretsirik gelditu da delako piratarekin: borrokalaria baina ez odol-gosea, gogorra krudelkeriaren muga iragan gabe, irmoa eta aldi berean tratua egiteko prest, aberatsa baina eskuzabala, ausarta eta aldi berean zuhurra... Finean, etsai guztiak nahi luketen etsaia eta lagun guztiak nahi luketen laguna. Akats bakarra, Bruneiko raja zuriaren alabaz maitemintzea; eta ez Bruneiko raja zuria pirataren arerio handiena delako, baizik eta, Saioaren iritziz, haren alabak halako ohorerik merezi ez duelako. Izan ere, nola daiteke horrelako gizon bizi, kementsu eta ekina, halako emakume motel, zozo eta ilupaz tontotzea? Saioak ez du galdera horren erantzunik, baina egun hauetan, honako edo harako mendiko malda pikoan, nekeak eta beroak jota amore ematekotan egon denean, ametsari lotu zaio: bera zen, eta ez neska ergel hura, Mompracengo piratari bihotza ebatsia ziona, bera, eta ez bertze inor, haren ondoan itsasoa urratzen zuena, *parao* izeneko belauntzi arin horietariko baten gainean. Liburuan bezalaxe, irudimenaren laguntzaz egunez egun eraiki dituen istorioetan, agudo bai agudo agertzen ziren britaniarren gurutzontziak bere maitearengandik bereiztera. Alabaina halakoetan, bera ez zen kamarotean izuturik gelditzen.

*Kris* bat eskuan harturik –malaisiarren puñal ondulatua– Saioak ere parte hartzen zuen gudukan, hemen zizta eta han sasta. Zorioneko mendi-puntara hatsantua ailegatu orduko, ingelesa hondoratua zen eta bera, berriz, besarkada amultsu batean korapilatua pirata lerdinarekin. Kontrarioen kapitain garaituak Bikiren aurpegia izaten zuen beti.

Tamalez, italiarraren liburuak nahi baino lehenago akitu zaizkio. Nola damutu den aitaren apartamentuan sail bereko gehiago hartu ez izanaz! Hirugarren bat badu, baina bertze idazle batena, eta beldur da irakurri-



## ↪ Hizpide ↪

tako lehen bien pareko gertatuko ez ote den. Hitzaurrean irakurri due-  
nez, autorea iparamerikarra zen eta, hau ere, liburu sail luze baten egilea.  
Italiarrak ez bezala, berak bizi eta ikusitakoek elikatu omen zituzten bere  
nobelak. Alferkeria pixka batez lotu zaio, baina, orriak irentsi ahalean,  
aitzinekoekin bezain harrapatu sentitu da. Haren eskutik, Malaysiako  
itsaso eta manglar beroetatik Alaskako taiga eta mendi zurietara egin du  
jauzi. Protagonista ez da gehiago pirata maitemindu bat, Buck baizik,  
lera-zakur bat. Orain ere gatazkak izanen dira Yukon ugaldearen ertzee-  
tan urrea dela medio, orain ere gizakiaren xede handiak agertuko dira eta  
xede horiek kosta ala kosta lortzeko ahaleginak. Pertsonaiak, ordea, ez  
dira oraingoan hain taiu bakarrekoak agertuko. Inor ez da hain ona, hain  
tatxarik gabea azalduko; animaliak animalia direlako, eta gizakiak... hain  
juxtu ere gizaki direlako. Milaka harat-honaten ondotik, zakur protago-  
nista, Kaliforniako etxalde aberats batean sortu zena, oihanaren deia en-  
tzunda, basatasunera itzuliko da, eta otso baten pare bilakatuko. Saioak  
14 urte baizik ez ditu, baina Saioa ez da zozoa. Berehala sumatu du,  
osotara entenitzeko gai ez bada ere, idazleak gauza bat baino gehiago  
kontatu nahi izan dizkiola; alegia, istorio baten kontakizun hutsa baino  
areago, mezu bat eskaintzen ari zitzaioela, edo, hala nahi bada, mundua-  
ren ikuskera bat, eta munduaren ikuskera hori ez dela, preseski, gizakia-  
rekin samurra.


Eta Saioa Buck-ek oroitzen hasi da, mendian goiti ari delarik, aitari eta  
Bikiri ahal bezala segika. Eta, biziak kolpatu bezala, pixka-pixkanaka sen-  
dotzen eta aldi berean basatzen doan animalia horren pareko sentitzen  
hasi da, eta liburuko lera-zakurrak bere kontrarioak bezala, bera ere pa-  
tuak –edo Bikik berak– paratuko dizkion proba guztietatik onik atera  
behar duela erabaki du. Zortzigarren egunean, emakumeak hamar mi-  
nutuko aldea baizik ez dio atera.

—Azkenean mendizaletuko zaigu gure kalekumea.

Neskak, erantzun gisa, mihia atera dio Bikiri. Gero eta eramanezi-  
nagoa zaio bere aitaren neskalaguna.

Azken eguna dute gaur. Iluntzean dira itzultzekoak, eta Saioak iraku-  
rriak ditu kanpinera ekarritako hiru liburuak. Arratsaldeko une gozoa ez  
dela errepikatuko jakiteak trenpu txarrean jaikiarazi du goizean. Tira,  
arratsaldeko une gozoa ez dela errepikatuko jakiteak eta Bikik prestatu  
duen planak. Lehengo egunetan igotako mendiak apalegiak iruditu, non-  
bait, eta hiru milako batera igo nahi du orain, despedida gisa. Aitak ere  
bai, bistan da. Saioari ez diote iritzirik galdetu.

Ordu bete goizago atera dira zakuetatik. Bikik, aurrekoetan baino arro-  
pa gehiago hartzeko komenientzia aipatu du, «badaezpada ere». Saioak  
keinu adierazkor bat egin du eguzki aldera. Goiz izan arren, berotzen  
hasia du.



## ↻ Hizpide ↻



—Goi-mendian beti izaten ahal dira eguraldi aldaketak, udan bereziki, eta gaur ekaitz arriskua omen dago eguerditik aurrera —azaldu du Bikik, bere motxilari soka gehitu bidenabar.

Neska erresumindua ez da isilik gelditu:

—Norbait urkatu nahi badugu, izanen dugu zerekin.

—Saioa! —errietan hasi zaio aita, baina emakumeak neska bakean uzteko keinua egin dio.

Ibiltzen hastearekin, bizkar gainean berrogei kiloko harria daramala iruditu zaio neskari. Hogei urrats gabe, zerbait ahantzi zaiolako aitzakian, giltza eskatu eta autora itzuli da. Aitaren eta Bikiren isilpean, maleteroan utzi du motxilan sartutako arropa gehigarri guztia: anoraka, forroa, galtza luzeak, euri-kapa... Jertse mehe bat baizik ez du barkatu. Hagitzez arinago doa orain.

Ez da aski izan. Pirata maiteminduen eta zakur oihaneratuen istorioak buru barnean jira-biraka erabiltzea ere ez. Hiru-lau ordu geroago, Saioa ez da pauso bat gehiago egiteko gauza. Mendi-ataka baten ondoan dira, otamena jaten. Aitak eskaini dion txokolatea irensteko indarririk ere ez du neskak. Haratago, gailur elurtuak erraldoi kaxkazuri bat dirudi haien ondoan.

Aitak kezkatu behatu dio bere alaba unatuari.

—Zenbat falta dugu? —gizonak Bikiri.

—Ordubete. Gehixeago beharbada.

—Orduan bakarrik segitu beharko duzu. Saioa eta biok zure esperoan geldituko gara hemen.

Neska ziztatu balute bezala zutitu da.

—Ezta pentsatu ere!

Ederki daki zer gogo bizia duen aitak mendi horretako kaskoa zapaltzeko. Bere erruz igo gabe gelditzen bada, zizare ustel bat sentituko da bizi osoan.

—Bakarrik gera naiteke. Zer gertatzen ahal zait? Janari pixka bat utzi eta hemen egonen naiz, patxada ederrean eguzkia hartzen, zuek jaitsi arte.

Lanak ditu bi helduak gonbentzitzen. Aitak, hasieran, ez du inondik ere alabaren proposamena onartu nahi. Hainbertzeraino non, halako batean, Bikik berak bere burua eskaini baitu, gizonaren ordez Saioarekin gelditzeko. Alarma guztiak piztu zaizkio orduan neskari: ordu eta erdi bakarrik Bikirekin? Nahiago du gailur-gailurreraino igo, gero oinak moztu behar badizkiote ere! Neskaren gogo eza sumatuta-edo, emakumeak berak egin du atzera.

—Tira, beharbada Saioa zuzen dago. Zer kalte du hemen pixka batean gelditzeak? Di-da batean egingen dugu joan-etorria.

Neskaren argudioek huts egin duten leku berean egin dute bidea Bikiren arrazoiek. Aitak amore eman du.

## ↪ Hizpide ↪

—Baina, faborez, ez hemendik mugitu.

Abiatu dira. Saioak atakaraino jarraitu dio begiz haien ibiliari. Han begitik galdu ditu. Bikiri aditu dionez, Itxura denez, handik aitzina bertze isurialdetik ematen zaio segida igoerari. Une hori hautatu du lurrean zabal etzateko. Kamiseta bularralderaino goratu, galtza motzak are motzago egin eta zero urdinari azken begirada eskaini dio begiak itxi baino lehen. Gozo da hemen, eguzkipean. Puska batean, Saioaren gogoa Yukongo urre-bilatzaileenganaino bidaiatu da. Berak ere, urre-bilatzaile ausarta bilakatua, oihaneko piztiei eta gaizkileei buru eman die, bere zakur leialaren laguntzaz. Erran gabe doa Bikiren aurpegia dutela otso guztiek eta lapur guztiek.

Bat-batean, freskura sumatu du beso biluzietan. Begiak ireki ditu. Hodei beltz batzuek lekua kendua diote eguzkiari. Erlojuari begiratu dio: kasik ordubete iragana da aita eta Biki lekutu direnetik. Motxilatik jertseia ateratzen ari den une berean diz-diz bat ikusi du zeruan. Burrundarak oilo-ipurdia jarri dio. Istanteko, lehen euri tanta lehertu zaio besoan. Motxila berriz arakatu du, baina hor ez da deus gainean jantz dezakeenik. Dena auto barrenean utzi du goizean abiatzerakoan. Bihotza uzkuriturik, alde guztietara bihurtu ditu begiak: inolako aterberik ez du eskaintzen mendi bazter bakarti honek. Ohartu orduko, erauntsipean dago; zeruko urtegian norbaitek atek ireki eta, ur jauzi batean, neskaren buru gainera husten ari da.

Izua. Liburuetan maiz agertzen den hitza da izua. Saioaren ezpainetan ere, «izutua naiz» edo «izutu nauzu» bezalako esaldiak ez dira arrotzak. Lehenagoko «izualdi» horiek, ordea, ez dute deus ikustekorik momentu honetan bere gogoaz jabetzen ari den sentipen izugarriarekin.

Oinazturak –tximistak– zerua urratu du berriz, eta kanoikada baten antzo belarriratu zaio jarraian ortotsa –trumoia–. Horren ondotik, bertze bat. Eta bertze bat. Eta bertze bat. Saioa, Mendebalde zibilizatuaren alaba, ez da inoiz bonbardaketa batean suertatu. Orain badaki zeren eitea duen.

Ez bat eta ez bi, lasterrari eman dio malkarrean beheiti. Itsu-itsuan ari da, begi parean euri usuaren errezela baizik ez duela. Urak, bere gorputzean behera irristatuz, bidea egin du kamisetaren, galtzen eta are galtzerdien barnean ere. Bere zangoek min hartzen dute harriekin talka egitean. Pauso bakoitzarekin oinaze gogorra lotzen zaio belaunetik. Hamar-hamabi urratsetik behin, harri loka bustietan lerratu eta lurra jotzen du haren ipurdiak. Hala ere ez da gelditu. Igotzean hiru ordu laurdeneko malda pikoa izan dena hamar-hamabi minutuan jaitsi du neskak. Hain dago ihesari emana, ez baita ohartu bazterrak zelaitzen hasiak direla eta udako larre agorrak lekua kendu diola harri biluziari. Latzena gainditurik, beratzenean erori da Saioa, plausta muturrez aitzin.



## ↪ Hizpide ↪



Minutu bat baino gehiago egin du luze, gihar bat ere higitu gabe. Hatsa berritzea, arnasa berreskuratzea du lan bakar. Denbora behar du konprenitzeko ez duela oinaztura batek bere hartan kiskali. Gorputz atalen bat mugitzera deliberatu denean, ezker eskumuturretik hasi da. Hantxe du min berria; esku huraxe ezarri du lehenik erorikoan. Horrez gain, odol pizarra bildu du haren mihiak euri urarekin nahasia: zauria egin zaio kopetan. Bizirik dagoela egiaztatzeak ez dio, nolana den, jarrera aldarazi. Aurpegia belar blaituan landatuta beldur gutiago dio ekaitzari, lasterrean xut baino. Bertzalde, gehiago ere ez da bustiko: gorputz atal bakarrik ere ez du zipatu gabarik.

Ezin, alabaina, honela luzatu. Lasterka etorri bitartean sumatu ez duen hotza bere hezur guztiez jabetu da amen batean. Dardarika hasi da, hortzak hortzei. Jaiki beharra dago, nahitaez, bere burua berriz ere oinazturen menpe ezarriko badu ere. Italiarraren liburuko pirata malai-siar lerdenaz oroitu da: bere *paraoan* zutik, ikararik egin gabe, ekaitzak Labuango itsasoa inarosten zuen bitartean. Hotzikaretan zutitu eta bideari lotu zaio, mantso oraingoan. Boten barrenean ura dabilkio; plost-plost-plost aditzen du urrats bakoitzarekin.

Zeruak ez du bere kolera eztitzeko itxurarik. Saioak, bere gainean distira bat sumatu orduko, burua behekitzen du eta begiak ixten: ez du bere azkenaren lekuko izan nahi. Gero, ortotsa entzuten du eta horrek adierazten dio ez dela oraindik une beltza etorri. Euriak ehundaka hari heze marrazten dizkio buruan, lepoan, bizkarrean, izterretan. Zonbi bat bezala dabil, gorputzak berez daraman abian.

Ordoki batean da. Gogoan du tokia. Igotzean, alde batera borda zahar baten hondakinak ikusi ditu eta bertzera erreka bat, harrien gainean salto eginez gaintitu dutena. Orain, ur ertza bistara duenean, ezusteak zurrundu dio gorputza. Ekaitzaren ondorioz, arestiko zirripa mehea halako lau edo halako borts da zabal eta sakon, hiru ordu lehenagoko lats bare gardena barik, edozer gauza irensteko prest dirudien ugaldetaz uherra. Zlantza une baten ondoan hurbildu eta oina sartu du. Ziztuan ateratu du: tira eta tira egiten dio urak, bere baitara eraman nahian bezala.

Bordako pareta eroriekin talka egin du ia-ia. Garai batean teilatua ere izanzen zuen; orain, lau horretan ere, gehiago da zuloa harria baino. Kantoi batean, dena dela, paretak elkar bermatzen dute oraino. Idazle amerikarraren liburuaz oroitu da: Buck zakur protagonistak, elur ekaitz baten erasoak pairatu zuen batean, bere arbaso otsoengandik zetorkion senari erantzunez, zulo bat egin zuen elur hormatuan, eta bere aterpea han ezarri.

Kantoi horretara jo du Saioak. Motxilan daraman nabalaz lagunduta, asunez garbitu du zokoa. Gero, harri lau bat ezarri du erdian, jarlekutako. Estalkia falta du. Bordatik hurbil, ezipelak daude, enbor gogorreko



## ↪ Hizpide ↪

zuhaixa hostotsuak. Nabalaz eta gelditzen zaion indar apurraz baliatuz, adar sorta bat moztu eta lurraren kontra joz xukatu du. Zeharka ezarri ditu bi pareten gainean, muturrak harriekin zapalduta haizeak eraman ez ditzan. Erdipurdiko zapel horren azpian uzkurtu da Saioa. Metro karratu bateko aterpea ere ez da, eta ituxura bat tantaka ari zaio bizkar gainera, bustia bustiari. Saiatu da bere burua kontsolatzera, oroitzuz-eta amerikarraren liburuko zakurra ez zela samurrago egonen bere elurpeko habian. Gero, malkotan urtu du bere bakardadea, bere nekea, bere hotza, bere mina.

Negarrez ari da oraino, Bikik ordu erdi geroago aurkitu duenean.

—Hemen zaude!

Itsasotik ateratako mamua dirudi, gorputz osoa ezezik motxila ere tapatzen dion kapa blaituan.

—Beharrik moldatu zaren nola edo hala aterpetzeko. Guk baino fundamentu gehiago erakutsi duzu.

Emakumeak neskatikoa bera baino arinduagoa ematen du, Saioa aurkitzeagatik. Espero ez bezala, ez dio errietarik eman, ez ataka ondotik alde egiteagatik, ez arropa gehigarriarik ez eramateagatik. Aitzitik, berak eskaini ditu inork eskatu gabeko azalpenak. Nonbait, menditik jaisten hasterakoan, mendi-bizkar batean mugitu ezinik gelditu dira, ekaitzak harrapatuta. Horra zergatik ez diren behar bezain azkar itzuli.

Saioa aterpetik kanpora jalgi da. Atertzen hasia du.

—Zerbait beroa jantzi, agudo. Itxura pena-emangarria duzu.

Bikik kamiseta bat eta forro bat atera ditu bere motxilatik eta eskaini dizkio neskatiokari. Galtzerdi pare sikua ere bai. Seguraski, Bikiri ere ez litzaizkioke gaizki etorriko: kapa kenduta, bustia ageri da haren arropa ere. Saioa bera ustekabeturik gelditu da bere baitan ernatu den sentipen bitxiarekin: gogotik hartuko luke emakume horren besarkada.

—Aita? —neskaren lehen hitzak.

—Ataka ondoan ez zinela ikusita, lasterbidea hartu du, autoa utzi dugun aldera joko zenuelakoan. Presatu beharko dugu, behar baino gehiago ez kezkarazteko. Gainera, erreka nola dagoen ikusiko zenuen. Arriskurik gabe pasatu arte gora, oso gora igo beharko dugu, ia-ia goiko atakaraino.

Ez da posible aditzen ari dena. Biki zirika ari zaio noski. Bere indar guztien jabe egonez gero, ordu eta erdiko bidea izanen lukete, bordatik atakaraino. Malkoak izan ditu berriz mazeletan bisitari.


—Arrastaka eramanda ere ezin izanen nuke...

Bikik burua jiratu du mendi aldera, berak ere zorioneko atakaraino zenbateko bidea duten neurtu nahian-edo. Eguzkia bazterrak argitzen ari da berriz. Emakumeak besoak uzkurtu ditu, amore emanez.





## Hizpide



—Ez dakit ez ote naizen gaur bigarren aldiz okertuko...

Erreka ertzeraino abiatu dira. Ura arestian bezain indartsu eta mehatxukor ageri da orain ere. Emakumeak soka atera du motxilatik.

—Ez dugu inor urkatzeko; balioko du, hala ere.

Saioa hezurretaraino gorritu da.

Bikik botak eta galtzerdiak erantzi eta erreka bertzaldera jaurti ditu lehenik.

—Zuk ere kendu.

—Min hartuko dut —arranguratu da Saioa.

—Bide luzea dugu oraindik eta ahalik eta zango idorrenak beharko dituzu, autoraino ibiliko bazara.

Mutur bat harkaitz batera lotu eta bertzea bere gerrian estekatu du Bikik. Bere soinen inguruan biribilkatu du gainerakoa, pelikuletako mexikarrek bala-zorroak bezala. Beraren eta harkaitzaren arteko soka-tarte laxoa Saioaren eskuetan utzi du.

—Nik aurrera egin ahalean askatuz joan beharko duzu zuk, baina beti teink egon dadila.

Erantzukizunak izerditan jarri du neska, baina denborarik ere ez du zuzen ala makur ari den jakiteko. Begi klixka batean, Biki bertze aldean da, galtza motz bustiak bertze makurrik ez duela. Saioarendako trepeta muntatzen ari da jadanik. Oinazturak jotako izei zahar baten enborra hautatu du euskarri gisa. Hartan soka teinkatzeko korapiloa eginda, muturra Saioari jaurti dio erreka bertzaldera.

—Lotu nik bezala.

Emakumeak hitz gutitan azaldu dio nola jokatu: neskatikoak bi atxikidura izanen ditu, bata soka finkoa, harkaitzetik enborrera, esku batez hari heltzeko, eta bertzea gerribueltan, Bikik berak, biltzearekin, bere eskuz tinkatuko duena.

Ur hotza bere aztaletan milika sumatzearekin berragertu da izua, arestian, ekaitza hastean, barne-muinetaraino sartu zaion izu bera. Idazle italiarraren liburuak ekarri ditu gogora. Horietariko batean, pirata lerdena zebilen uretan, heriotzaren kontrako borrokan. Orain emakume bat egonen da trantze berean. Saioak hatsa hartu eta lehen urratsak egin ditu erreka haziaren barnean. Harrien ertz zorrotzak zango-zolari lotu zaizkio. Urrats bakoitzarekin haztamuka dabil, min hartu edo lerratu beldur. Korronte bortitza bulkaka ari zaio, bere harrapakina usaindu duen uretako deabru zital baten gisara. Erdian-edo, ura gerriraino duenean, behaztopa egin du. Zipriztinak zaflako hormatuak dira aurpegian eta besagainean. Saioaren ezker eskuak naufrago batek ohol puskari bezala kontu dio soka finkoari, baina soin-adar guztiak hozmindurik ditu. Ez aitzin ez gibel, indarra galtzen ari da. Nylonezko euskarria askaturik, bere burua ur uhe-

## ↪ Hizpide ↪

rrari abandonatu dion momentuan sumatu du tiraldi bortitza; ia-ia bi zati egin dio gorputza. Biki soka bil eta bil ari da. Bortz segundo geroago, Saioa ur ertzean dago, bustirik eta onik.

Emakumea ondoan jarri zaio. Ahalegina eta ikara itsatsiak daramatza aurpegian.

—Faborez, aitari hitz erdirik ez, honetaz. Txikituko nau bertzenaz.

Arropa idor gehiagorik ez dago. Tarte luzea dute oraino autoraino eta hura tipi-tapa egin behar. Bidean, nekea borrokatzeko, liburuez mintzo dira. Bikik irakurriak ditu egun hauetan Saioa hainbertze liluratu dutenak. Harrigarria neskarendako, uste baitzuen emakumeak ez dituela halakoak maite.

—Batzuetan azpian izaten duten mezua, horra gustatzen ez zaidana —azaldu du—. Konparaziorako, emakumeak apaingarri hutsa izaten gara gehienetan. Herri tikiak ere, Alaskako indioak edo Borneoko dayakak bezala, basati krudel batzuen gisara agertzen dira. Gaurko ikuspegietatik idatzitako liburuak behar genituzke. Eta hemengo idazleek idatziak bada, hobe.

Saioa ados da. Fede guti du, hala ere, hemengo idazleengan. Ez du bakarrik ere ezagutzen, baina susmoa du coca-colaren kontra purrustada aspergarriak botatzeko prest dagoen jende gehiegi dagoela haien artean.

Elkarrizketa eten du bide erdira agertu zaien figurak. Aita da, kezka bizian. Autoraino etorri eta Saioa han ez zela ikusita, itzulbideari eman dio. Bikik neskari xuxurlatu dio:

—Oroitu: errekaok txintik ere ez.

Saioak trankil egoteko keinua egin dio emakumeari, gizonaren besarkada urduria biltzen duen bitartean.

Gauak hainbat ordu ditu aitaren apartamentua jo dutelarik. Itzulerako bidean, Saioak pausatzeko parada izan du, atzeko jarlekuetan loak harturik. Salako sofa-ohean luze etzana, Biki eta aita lehertuak baino freskoago ageri da. Emakumeak esku tinka bero batez erran dio gabon pasa. Aitak aspaldiko partez ferekatu dizkio adatsa et aurpegi-mazelak, tikiagoetan bezala.

—Bihar dei egin beharko diozu amari. Baina faborez —apaldu du boza—, ez erran ja ere gaurko abenturaz.

Saioak arestian Bikiri egindako keinua berri du orain aitari.

Minutu bat geroago, gizonaren zurrungak eta emakumearen arnas sakona belarriratu zaizkio neskaticoari, haien logelatik. Jaiki eta aitaren liburu zaharren artean hasi da miatzen. Bat hautatu du, alemaniar batek idatzia. Ameriketako mendebalde urrunean gertatzen da, kontrazalak dioenez. Indio baten eta ehiztari zuri baten arteko adiskidantzaaren istorioa, nonbait.



↪ Hizpide ↪

# Abentura liburuak iruditegi sinbolikoen eraikuntzan

JESÚS BALLAZ ZABALZA



## Sarrera

Gaur egun arte, soziologiak, haur eta gazte literaturari gagozkiola –eta Teresa Colomer-ek bere *La formación del lector literario* lanean seinalatzen duen bezala– bi gai aztertu ditu nagusiki: irakurketaren praktika soziala, eta haur liburuek transmititzen duten ideologia. Zientzia horretako adar sujerikorrenaz, ezagutzaren soziologiaz, baliatuko naiz, oso bestelako gai batean sartzeko: literatur genero batzuen, zehatzago esanda, abentura liburuaren ekarpena irakurle gazteengan «mundu mentalak», iruditegiak sortzeko garaian. Sinetsita nago zenbat eta ikuspuntu gehiago erabili gaiei heltzerakoan, are hobeto ezagutzen ditugula eta are hobeto kalibratzen haien inplikazioak.

Diziplina honetako Schutz, Berger edo Luckmann bezalako autore klasikoek behin eta berriz erakutsi dute «errealitate sozial» deitzen dugun hori –mundu mentalak ere barne– ez dagoela aurretik emana, aitzitik, gizakiek eraikia dela (Berger



eta Luckmann, *La construcción social de la realidad* [Errealitatearen gizarte eraikuntza], Amorrortu, Buenos Aires, 1972). Hasieratik bertatik aitortu beharko dut, ordea, irakurketa horien zale bat besterik ez naizela. Beraz, nire azalpenarekin konforme geratzen ez bazarete ere, ez uko egin xendera horiek zuen kontura ibiltzeari, zuen jakin-min intelektualari ikuspegi zabalak irekiko baitizkiote, eta ez dizuete hutsik egingo.

### I. Errealitate sozialaren hiru mailak

Inguruan daukaguna ez da halabeharraren emaitza, edo jainkoen edo naturaren emaitza. Eraikin sozial bat da, aldez aurretik bazen materia baten gainean eraikia, jakina. Errealitatearen eraikuntza sozialean, gutxienez, hiru maila azter ditzakegu, ondo bereziak:

1. Duela 500 urte Vitoria-Gasteizko inguruak ez ziren horrelakoak. Eta duela 100 urte ere ez. Inguruan dugun paisaia, gizakiek –orografiak, klimak eta naturak emandako zerbaitetik– sortua da. Ulibarri-Ganboako urtegia, adibidez, ura menderatzeko proiektatu zen. *Naturaren hezitze* hori da gizarte-eraikuntzaren alderdi materiala, eta helburu estetikoak, ekonomikoak zein bestelakoak izan ditzake.

2. *Eraikuntza politikoa* ere –bai giza taldearen ordenatze juridikoa bai boterearen jarduna– giza sorkuntza da. Esparru honetan ez dago ordena naturalik, ezpada antolamendu arauak. Duela 30 urte eusko legebiltzarrik ez zen ari. Garaian-garaian, gizarteak hainbat praktika politiko antolatu, onartu eta legitimatzen ditu.

3. Baina gizarteek ez dute kohesionaturik irauten ez badute *iruditegi sinboliko* jakin komun batzuk elkarrekin partekatzen (maila ezberdinetan eta bide ezberdinetatik eskuratzen badituzte ere). Iruditegi horien bitartez, loturik sentitzen dira bere egiten duten iragan batekin; hau da, beren identitateari dagokiola jotzen dute, eta jomugatzat duten etorkizun bat aurreratzen duela. Hauxe eraikuntza sozialaren alderdi ukiezina da, *barnekoa*, hirugarren maila; beharrezkoa, aurrekoek funtziona dezaten.

Talde-kohesioan ez ezik, pertsona bakoitzaren biografia eraikitzen ere badute beren eginbearra. Hona bada, nire hizketagaia: zer ekarpen egiten duen abentura literaturak iruditegi sinboliko horiek eraikitzen edo eskuratzen, eta zer-nolako garrantzia duten proiektu pertsonal oro garatzean.

*El último barco* liburuan (Siruela) Sloterdijk-ek gogoeta egiten du «nola bildu daitezkeen gizakiak egitasmo komun batean». Filosofo alemanak gogoeta hori egiten du hain zuzen ere bat datorrelako garai honen inguruko diagnostiko ezkor batekin, hots, kultura maila handia izanik ere, gizakia «ez da gauza izan espazio irekietan –hau da, askatasun esparruetan– mugitzeko protesi emo-



## ↪ Hizpide ↪



ziozko eta sinbolikorik sortzeko». Gabezia hori dela eta, dio, «gero eta handiagoa da, bai beren bizimoduagatik bai beren buruaz duten konzientziagatik, *irla nomada* gisa deskriba daitezkeen pertsonen kopurua». Hiritzar posmodernoetako «apartamentu-indibidualismo» honetan, ir-latasun hori norbanakoaren definizioa bera izatera heltzen da (Sloterdijk, *En el mismo barco*, 96. or., Siruela).

Gazteak hazten ari diren gizarte-eredu nagusi hau, posmoderno alegia, behinik behin problematikoa da, hartan «harreman sakona galtzeko bidean dagoen espeziea da, norbanakoa banatuta dago harreman zatikako eta mugatuaren sail batean, eta bizitza hainbat molde eta jarrera inkohherentetan datza» (Gergen, *El yo saturado*, 239. or., Paidós). Beste era batera esanda, gazteak hazten diren ereduak gutxietsi egiten du bizitzari aurre egiteko proiektu baten beharra; iritzira doaz, «gure Lurreko existentzia, bere osotasunean, unitate baten modukoa da, abentura baten modukoa» (Simmel, *Sobre la aventura*, 24. or., Península). Halako egoera batean, zer iruditegi sinboliko bereganatzen edo eraikitzen dituzte gazteek bizitzari aurre egiteko? Ba al du lekurik irakurketak, abentura liburuenak bereziki, abentura gizatiarrean eusten lagunduko dieten iruditegi sinbolikoak sortzean edo irautean? Zerez elikatuko dituzte banaka eta talde gisa hazteko behar dituzten iruditegiak?

Neure buruari galderok egiten dizkiot, uste baitut –jarrera errotik posmoderno batek dioenaren aurka– norbanako baten autobiografia ez dela besterik gabe haren bizitzaren joana, halabehar askoren emaitza hutsa; aitzitik, uste dut proiektu bat dagoela atzean, proiektu zehazkabea bada ere, bizitza hori berez sortu, zehaztu eta aberastu dezakeena.

## II. Iruditegi sinboliko partekatuak galtzea, eta beste iruditegi pertsonalago batzuk berreraikitzea

### *Niaren hustutzea*

Gizakion ia historia guztian, inguratzen gaituena barneratu ahal izateko bidea –mundua martxan dagoela jaiotzen baikara guztiok–, bide natural, jatorrizko eta beraz, fundatzailea, ahozkotasuna izan da. Eta oraindik ere halaxe da neurri handi batean. Irakurtzen hasten garenerako, familiak eta telebistak hitzez eta irudiz kontatu digute gure talde-historia eta haren zentzua. Bada narrazio horren ortodoxia bat familiarik beretik, inguru sozial edo politikotik, eta hedabideetatik datorrena. Kontakizun horien guztien bitartez –ez datoz beti bat noski–, oinarrizko iruditegi bat sortzen da gure baitan, gure taldearekin batera daukagun iruditegi bat. Narrazio hori indartu ohi dute beren kontakizun berezkoa bideratu nahi duten erakundeek: gogoan ditut nagusiki eskola (*narrazio zientifikoa*) eta eliza (*narrazio erlijiosoa*).

## ↪ Hizpide ↪


Areago: hori baino lehen, hitzaren beraren bitartez, batez ere eguneroko bizitzan erabilitako metaforen bidez, iruditegi sinboliko bat bereganatuz joan gara; horrek ematen digu, neurri handian, geure jotzen dugun lehendabiziko mundu-ikuskerara. Egia esan, maileguz hartutako ikuskerara bat da, gutxika-gutxika, osorik edo zatika onartuz edo arbuaiatuz joango garena.

Hara, bada: iruditegi komun hori zatikatuz joan da, ausarki, posmodernitatearen garaian. Historiatik etorri zaizkigun kontakizun handiak susmagarriak zaizkigu. Ez dira uniformeak, eta horrek ikuspegi interesatuak direla pentsarazten du eta, beraz, erne egon behar dugula horien aurrean. Susmoaren kultura, errealitatea ulertzeko dugun oinarri nagusiak, kristautasunetik datorkigun iruditegiak (bere aldetik antzinako hainbat mito bereganatu eta berriz interpretatutakoa) gutxiturik ikusi du bere indar soziala. Urruti daude dagoeneko komunak izatetik zeru, lur, infernu, beste bizitza edo lehenbizi norbere elkartasunaz erantzun beharreko epai baten mende dagoen existentzia baten ideiak. Izan ere, sarri eragotzi egiten da iruditegi honen atzealdean dagoen eduki metafisikoa, eta irakurketa hitzez hitzekoa egiten da, hau da, infantila; horrek ez du gauza onik esaten arazo hau arinkeriak ebatzen dutenen adimenaz.


Ideologiaren atzeratze garai honetan –kristautasunaz deskribatutako prozesuak marxismorako ere balio du noski–, kosta zaio iruditegi ordezko bat sortzea. Aitzitik, areago gertatzen ari da iruditegi sinbolikoen atomizazioa. Muga-mugan, esan daiteke nork berea eraiki behar duela, bere behar edo itxaropenei erantzuteko aukera txikiak eginez. Baina horrek bere ondorio nabariak izan ditu noski. Niaren eta arau sozialen azpiko oinarri sinbolikoak desagerturik, gizakia hauskor ageri da. Gergenek saturazioaren metaforaz deskribatu du. Kontraesanezko ideiak bideratzen dizkieten ikus, entzun eta idatzizko hainbeste inpaktuk inbaditua, Nia bete-beterik dago. Bere esentziaz husturik eta inpaktuz berriz beterik, zailtasun handiak ditu bere buruaren eta bere bizi-proiektuaren kontakizun koherente bat eraikitzeko. Noraez horrek, hainbat soziologoren esanetan, gazteak jotzen ditu gehien bat.

### *Niaren berreraikuntza*

Hala eta guztiz ere, iruditegiak behar ditugu, ibilgai dugun eta ibiltzea espero dugun bidea sinbolikoki marraztuko digutenak. Norbere biografia eraikitzeak, ezinbesteko lan horrek, fabulazio pertsonal baten sorkuntza behar du alde aurretik, murgildurik gauden gizarte errealitatearen erdian geure burua norbanako gisa agerrarazteko modua emango diguna.



## ⇨ Hizpide ⇨



Oso irakurle ez direnen artean ere, nahikoa sineste orokorra da errealitateak duen baliotsuena liburuetan islaturik dagoela. Hala moldez, non ikusten ohituta gauden eguneroko edozer gauzak ustekabeko dimentsio bat hartzen du, eta askoz argiagoa, gauza hori idatzita ikusten dugunean. Are gehiago, pertsona asko eta askori zaila egiten zaigu inguruan dugun errealitate sozialari antzematea eta hura deskribatzea, beste norbaitek bere idatzizko testuen bitartez ikustarazten ez badigu.

Horrek esan nahi du horien bitartez heltzen zaigunak baduela bere oihartzuna geure baitan. Eta, apurka-apurka, askotan bat ez datozen istorio anitzen bitartez, geure bizitzako alde aurreko marra argumental bat eraikiz goaz, iragan batek baldintzatua eta etorkizunerantz proiektatua. Irakurketak, eta horrek dakarren eduki-barneratzeak, ekarpen bat egiten dio gure Niaren eraikuntza aberastuari. Eta hala egiten du, inguratzen gaituen kaosa hezi eta ordenatu egiten duelako, eta konfiantza izan diezaioketu

gun «kosmos» bat sortzen duelako. «Ordena» hori errazago onartu ohi dugu baldin eta fidagarri zaizkigun beste batzuek ere onargarrizat jotzen badute.

Norbere hausnartze hutsez zaila da nork bere Niaren fabulazio sendo eta aberatsa egitea. Hori dela eta, zantzu batzuk miresten ditugunengandik hartu ohi ditugu eta beste batzuk, ordea, errefusatu egiten ditugu hain zuzen ere zantzuok dituztenekin inolako antzik izan nahi ez dugulako. Eredu horiek pertsona errealak edo pertsonaia literarioak izan daitezke; hitzen substantziaz egindako izakiok, baina, beren sendotasunagatik, erreferente gisara aurkezten zaizkigu. Pertsonaia-mota ugari aurretan, arau sozialak ere anitzak diren garaian, jendea oso eredu ezberdinen bidez saiatzen da bere burua definitzen.

Hala, beraz, hainbat pertsona eta pertsonaiaren bitartez, behar bezala barneraturik, gogo-egitura bat eraikiz goaz, bizitzako gorabehera batzuetan mingarri eta zentzugabeei alde aurretik eta sinbolikoki aurre egiteko modua emango digun armazoi mental bat.

### *Iruditegi sinbolikoen beharra*

Lluis Duch-en definizioa neure eginez, nik ere uste dut iruditegi sinbolikoak zera direla: «bizi-tzako ustekabeak aurreikusitako eskema batean txertatuz nahasmena eragozteko geure buruan sortzen ditugun mundu guztiak» (Duch. *Mito, interpretación y cultura*. Herder, 1998).

Nerabazarora arte, lehen esan dudan bezala, gure familiaren eta gure gizartearen iruditegiak geureganatzen ditugu. Baina gazte-zehazkabeta-



## ↪ Hizpide ↪

sun horretatik abiaturik, gogo-mundu geurearen bila gabiltza, haren bidez geure bizitzaz arrazoi emateko (*ezagutza-osagaia*) eta, batez ere, bizitzari konfiantzaz aurre egiteko (*ekintza-osagaia*). Ez da harritzekoa mundu nahasi batean hazitako gaztetxoek hitz mailegaturik ez onartzea, bere ametsen neurrikoak ez direlako. Soinuen munduan hau esateko erabili ohi den irmotasunez esanik, oso garbi dago batzuei barruko muinen bat ukitzen dien musikak –haiekin konektatu egiten duelako– arbuio erabatekoa sortzen duela beste batzuegan, hain zuzen ere beren nortasunarekin bat ez datorrela uste dutelako.

Gogo-mundu horren bilaketa, alde batetik, era logiko-zientifikokoa da (*diskurtso arrazionala*) baina, beste alde batetik, emoziozkoa ere bada (*diskurtso mitikoa*). Gazteak ez ditu bakarrik azalpen zientifiko egokiak –gero eta konplexuagoak– behar; aitzitik, bizi eta sentitzen duena adieraziko duten hitz sortzaileen beharra ere badauka.

Errealitatea arrazionalki azaltzen duen hitz logiko-zientifikoa ez zaio nahikoa; erdikusi egiten du badirela beste hitz metaforiko batzuk –istorioak–, bere asmo eta itxaropenak hobeto adierazten dituztenak, bai eta ikusten duenaren atzealdean sumatzen duena ere. Afektibitatea, errealitatearen ulertze intuitiboa adierazteko moduetako bat da literatura, eta metaforak eskaintzen ditu gutaz harago dagoen eta, beraz, deskribatzeko gauza ez garen horren ideia adierazteko.

Giza esparru zabal –zehazkabe samar baina oso erakargarri– horrek guztiak mitoak eta sinesteak zituen adierazpide ohikoak, eta horiek osatzen zuten iruditegi sinboliko partekatua. Gaur egun ere funtzio bera beteko duen adierazpide baten bila ari da.

Baina iruditegi sinboliko partekatu jakin batzuk hautsi badira ere, inork ezin ditu erabat bazterrerara utzi. Pentsa dezagun iruditegi aberatsik ez izatea ez dela kontu hutsala, autorik edo hozkailurik ez izatea bezalakoa.

Inork ez dio bere halabehar pertsonalari arrakastaz aurre egiten, aldez aurretik nolabait ere aurreikusi eta mentalki lantzantzen ez badu. Kontzentrazio-esparru batetik bizirik irten-dako Primo Levi idazle italiarrak esaten zuen, oker ez banago, bere patu gaiztoa partekatu zutenen artean komunistek eta kristauek eramaten zutela ondoen zoritxar hura. Eta hori, Leviren iritziz, beren iruditegi sinboliko indartsuei zor zioten.

### *Iruditegiak eta narrazioa*

Nola segi giza lan banakako eta taldekakoan, iruditegi norbanako, zatituriko eta ahulduekin? Ezer baino lehen zehaztu beharra daukat, lehen Ni posmodernoaz egin dudana deskribapena gora-behera, oraindik ere partekatu egiten ditugula hainbat



## ↪ Hizpide ↪

iruditegi, batez ere ditugun eta gaituzten hizkuntza-egituren bitartez barneratzen dugun memoria historikoko zakutzar horretatik datozkigunak. Adibide batekin adieraziko dut. Futbol-entrenatzaile batek, adibidez, «defentsa numantinoa» eginez irabazi duela-eta bere taldea gorai patzen duenean, automatikoki –batez ere talde horrekin identifikatzen direnek– lehiaketan arrakasta izan nahi duenak beharrezko dituen bertutetzat jotzen dute eustea eta garaitzeko fedea. Eta bertutetzat ikusirik, barneratu egiten dute hori, eta aplikatu ere aplikatuko dute ziur aski beste egoera batzuetan.

Bestalde, pairatzen ditugun gatazka existentzialak ez dira gehiegi aldatzen, unean-unean kultur forma ezberdinetan azaltzen badira ere. Diskurtso logikoa aldatuz doa zientzi jakintzak aurrera egin ahala, baina emoziozko diskurtsoak oso adierazpen antzekoak izaten jarraitzen du, gizakien gatazka psikologiko eta metafisikoak nekez aldatzen baitira. Hala ulertzen da nola, adibidez, Dostoyevskyren lanak irakurriz, irakurleak inpresioa duen errusiarra hobeto iristen dela bere sakoneneko kezketara edozein idazle bizi baino.

Istoriok, gizakiek denboran zehar beren bizitza arrazoitzeko landu duten emoziozko diskurtso zabal horretako adierazpen pribilegiozkoak dira. Mendetan zehar irauten dute ahoz aho, inork idatzi baino lehen; hain zuzen ere entzuleak bizi ziren giza mundua adierazten zutelako, eta hari aurre egiten laguntzen zielako.

Horien artean, abentura narrazioek –beste horien jarraitzaile naturalak idazketa zabaldu zenetik– zeregin funtsezkoa dute adierazten ari garen honetan. Denbora ia mitiko batean kokatutako kontakizunotan, pertsonaiek balentrietan proiektatzen dute beren bizitza, eta aldi berean balentriak gertatzen diren mundua sortzen dute. Istoriok gure giza kondizioaren zutabe nagusiak biltzen dituzte: «itsasoaren eta basoaren topaketa, geure buruaren definizioa animaliarekin kontrajarrita, nerabearen inimizioa maitasunean eta gerran, zuhurtasuna indarraren garailu, elkartasunaren berrasmamena, ausardiaren eta pietatearen merituak [...]. Halaber, denboraren atzaparkadaren markak, ingurukoengandik banatu beharra, esplotazio eta lukurreria, zahardade makaldua, heriotza». (F. Savater, *La infancia recuperada*, 28. or., Taurus)

Abentura istorioak giza kondizioaren metafora pribilegiozkoak dira, eta are aberasgarriagoak zenbat eta polifonikoago izan han kontaktzen diren peripeziak eta protagonista diren heroiak. Gure une historikoa deskribatzen ez badute ere, garaikoak dira, ondo islatzen dituztelako gure gatazka oinarrizko eta betierekoak.

Hala, irakurleak, bere larruan bizi baino lehenago, narrazio hauetako protagonistengan bizi izaten ditu hainbat gatazka. Etorkizun dena sinbolizatzeko eraginkortasunak lortuko du irakurleak, hainbat arazoren au-



## ↪ Hizpide ↪

rrean, beretzat berriak ez balira bezala ikus ditzan eta, beraz, haiei aurre egiteko gauza sentituko da. Alde horretatik, gaztetxotako irakurketak, inimiziazio eta abentura istorioak batez ere, iturririk emankorrenetako bat dira norbere mundu sinbolikoaren sorkuntzan. Telebistaren aldean –diskurtso uniformatzailea–, irakurketa horiek pentsamendua suspertzen dute, eta gatazka poliedriko ustekabekoei aurre egiteko gai diren mundu sinboliko konplexuak sortzen laguntzen dute. Telebistak bakarrik albistek emateko joera du –*news*–; literaturak, aldiz, ikuspegiak –*views*– ematen dizkio irakurleari, errealitate soziala aztertzeko eta hartan esku hartzeko. Paraje ezezagun batera heltzen den ibiltariaren antzera: muino batera igo, mapa zabaldu eta handik begira hasten da, bere burua berriz kokatzeko, dituen informazioak berritxuratzeko eta hala seguruago jarraitzeko.

### *Narrazioen ereduazko eraginkortasuna*

Nola hornitzen da barrutik gaztetxo bat etorriko zaionari, hau da, bere existentzia gatazkatsuari aurre egiteko? Aurreikusteko gaitasun jakin bat bildu beharko du –gogo-sorketa bat, iruditegi bat–, bizi-ikuspegia, sinesteak eta buru-estimua uztartuko dituen gaitasuna. Ez badu erlijio-kontakizun handietatik edo utopia sozial handien kontakizunetik eskuratzen (ez delako haietaz fio), beste istorio batzuetatik bereganatu beharko du. «Istorio», «narrazio» edo «kontakizun» erabiltzen ari naiz Walter Benjamin-ek *Narratzailea* saio ospetsuan erabiltzen zuen zentzuan, eleberriarekin kontrajarrita –Ortegak bere *Ideas sobre la novela* (Espasa-Calpe) lanean «luzakor eta gogoetatsu» deitu zuen generoa–. Oso ezaguna bada ere, labur-labur azalduko ditut hemen haren ezaugarriak:

- Benetako narrazioak jarraipena ematen dio gizateriaren hainbat pertsonen talde-memoriatik atzeman eta anonimoki eta ahoz kontatu zutenari. Narratzailea, beraz, areago da transmititzailea sortzailea baino. Istoriook bizirik iraun dute eduki gogoangarria dutelako eta gizakiari bere buruarekiko konfiantza ematen diotelako.
- Irakurtzen dituztenek han ikasten dute bizitzako erronkei aurre egiten. Errepikatzen direnez, zuhur eta baliagarritzat jotzen baitira, mitoen denbora zehazkabea kokatzen dira. Irakurleak, haietan murgilduta, jare egiten dio bere buruari. Ez ditu aztertzen, bizi egiten ditu.
- Protagonista heroi gisa agertzen da, baina ez du beti gauza berebizikorik egiten. Heroia da bere jatorriari eta bere patuari fidel zailako, eta jokabidea bere barnearen isla duelako. Azken buruan haren patua heriotza bada ere, garaile ateratzen da beti; alpinista haren antzera: Everest igotzen jarri eta bidean hilez gero, ez du hargatik porrot egin, bidea ireki baitu beste batzuentzat. Horrek zentzua ematen dio bere balentriari, eta imitatzeko duin egiten.





Hara bada, gazte orok, bere bizitzaren protagonista izateko, istorioetan bezala ikusi behar du bizitza hori, unitate gisa, edo ez behintzat hala-behar txiki askoren metaketa gisa. Eta hala bizi izateko, bere bizitza izaten ari den eta izango bide denaren fabulazio aurreratua eduki behar du. Hori dela-eta, sinetsita nago nerabeek –hain sentiberak aldi berean elkar-tasunari zein bakardadeari– gustuko dituztela oraindik beren irrikeri erantzun eta, nahi gabe ere, munduari aurre egiteko modua irakasten dieten narrazioetako protagonistak. Jakingarri litzateke non aurkitzen dituzten istorioetako gehienak gaztetxoek: liburuetan, zineman, telebistan. Baina hori beste kontu bat da, zeharkakoa, eta ez diot helduko, ez baitzait beharrezkoa nire argudioen hariari jarraitzeko.

### III. Abentura-narrazioak eta hango iruditegiak bereganatzea

#### *Transmisioaren defizita*

Nia bi mailatan zabaltzen da, bata azalekoa, bestea sakona. Azalean, errekatxo ezdeus bat ibil daiteke, haren urak azken iritsitako isurketaren kolorea hartuz doazela. Baina sakonean ur sakonetako korrante batek ibili behar du; arestian esan dudanez, Ni hori jaio zen eta txertaturik dagoen gizartetik elikatzen dira ur horiek.

Hala eta guztiz ere, gaur eguneko soziologo eta pentsalari batzuek adi jarri nahi gaituzte «harrera-egitura» deitutakoen porrota dela-eta (familia, eskola, sindikatuak, elizak), ez baitute lortzen egoki betetzen iruditegi eta balioen transmisio-lana. 1998ko martxoan *Le Figaro* egunkariak egindako elkarrizketa batean, Paul Ricoeur izeneko filosofoak aipatzen zuen: «Izugarria da erakunde integratzaile guztien ahuldadea (familia, eskola, eliza, sindikatu...), hau da, gizarte zibilaren erakundetzea osatzen duen guztiaren ahuldadea».

Erakunde horietan izandako desafilazioak –beren buruaz egiten duten eta munduaz proposatzen duten narrazioa errefusatzen delako–, Duch-en iritzian, bi egoera besterik ez ditu sortzen: edo konpromiso guztiei uko egitea edo, aitzitik, talderen batean –kolektiboa, sekta– hiperafilazioa izatea: taldekide-gaiak orduan akritikoki lagatzen du bere pentsamendua eta taldeak eraman dezan uzten du.

Nola ordeztu, zati batean bada ere, iraganeko ideologia handiek jada osatzen ez duten transmisio-bide hori? Literaturak egingo al du? Zinemaekin batera, aukera handia du orain, katekismo gisara ikasitako narrazioek gaitzusteak sortzen dutenez. Dagoeneko batere irakurtzen ez dutenak egunerokotasuna kontatzen duten istorio lauez elikatu beharko dira: bihotzeko edo bortxazko istorioak, telebista eta aldizkari jakin batzuek erruz jasotzen dituzten horiek, jendeak istorioen beharra izaten jarraitzen baitu.

### *Daitekeen Nia*

Georg Simmel-ek, hain zuzen ere *La aventura* (G. Simmel, *Sobre la aventura. Ensayos filosóficos*, 26. or.) izena daraman azterketa ezagunean, hala dio: «Bizitzako abenturazaleak gara: gure bizitza alderik alde dago abenturaren ezaugarri diren tentsioek zeharkaturik», nahiz eta bakarrik «abentura» esaten diegun tentsio horiek oso gogorrak direnean. Eman datorkigunaren eta lortzen dugunaren artean mugitzen da bizitza, lanaren bitartez (ustekaberik gabe eraikitzen baitu gure bizitza) edo bizitza bera ere jokoan jartzen dugun ekintza bizkor eta berezien bitartez (abentura) lortu ere. Halakoetan, abenturazalea bere indarraz eta zoriaz fio da. Nolanahi ere, zertan datza abentura kontzeptua bera? «Isolatu eta akzidental den zerbaitek behar bati erantzun eta zentzu bat gorde dezake» (Simmel, *Sobre la aventura. Ensayos filosóficos*, 14. or.).

Hala ere, deskribatu dudan moduan –Gergeni jarraituz, hau da, *eragin-pastixe* baten gisan– Niak oso ahulduta dauka batasun-zentzua, eta azkenerako inguruan dituen eta beregan eragina duten beste Ni askoren behin-behineko imitazioa bihurtzen da. Portaera arauak ere, beraz, besterenak ditu, eta sarritan kontraesankorrak. Nortasun banakakoa izan behar lukeena hustu egiten da, harik eta ahots ugari entzuten den erresonantzia-kutxa huts bat bihurtzen den arte: gurasoena, adiskideena, koadrilakoena, hedabideek idealizatutako pertsonaiena: abeslari, kirolari..., publizitate irudiak eta abar.

Barnean hainbeste ahots bizi zaion subjektua berea artikulatzen saiatzen da, nahiz eta asmo hori duenik ukatu. Jokoan dena, beraz, ahots propio baten bilaketa da, ezinbestekoa baita nor-bera izateko. Jakina, ez da erraza bereganatzea. Biografia, Nia denboran zabaltze hori, ez da sekula narrazio lineala izaten, baizik eta aurrera-atzerakada bizkorak dituen istorioa, desio, ilusio, gezur, ametsak eta beste bata bestearekin nahasten diren istorioa. Eraikuntza hori ez da egiten mapa bateko koordinadak marrazten diren bezala. Txokoak eta ilunguneak ditu; adierazi beharreko emozioen alderdiaz gain, inguru zehazkabeko barne-unibertso oniriko nahasiak ere jokatzen baitu.

Norbera den edo izan nahi duen hori adierazteko hitzak, nondik atara? Bere baitan aurkitzen ez dituen hitzetako asko literaturan aurkitu ahal izango ditu.

Gai izango al da irakurle gaztetxoa harrera-egituretatik onartzen ez duena fikzioan ikasteko, alegia, unean uneko eskakizunei jarritako arretaren ondorio den «Niaren zatikatzeak» ez diola errealizatzen laguntzen?

Fikziozko pertsonaiekin aurrez aurre jarrita, kinka batean jartzen da irakurlea: haien morala onartu, edo hura arbuia eta alternatibaren bat landu. Dialektika horretan baino ez da gertatzen hazkuntza pertsonala, Dostoievskiren Inkisidore Handiak non edo non dioen legez: «Gizaki





## ↪ Hizpide ↪

izateko sekretua ez datza huts-hutsean bizi izatean, bizi izateko arrazoiren bat edukitzean baizik. Bizitza-helburuaren kontzepzio egonkor bat izan ezik, gizonak uko egingo lioke bizitzen jarraitzeari.

Hala, «bizi-arrazoia» definitzen duen gogo-eraikuntza, iruditegi sinboliko hori, bai bizitzan bai fikzioan topo egiten ditugun ereduetatik atera dezakegu. Fikzioan ere bai, han eredu ongi zehaztuak marrazten baitzaizkigu, izan daitezkeen irakurleen bigarren mailako erabilpen horretarako.

Gogoetok idazten nituen bitartean, Donna Leon-en eleberrri bat irakurtzen aritu naiz: *Un mar de problemas*. Amaiera aldera, protagonistaren emazteak senar komisarioari zerbait esaten dio, azaldu berri dudanarekin lotutakoa:

«Eleberrietako pertsonaiak –azaldu zuen Paolak–, horiek dira benetan ezagutzen ditugun bakarrak. –Tarte bat utzi zion pentsatzeko, eta jarraitu zuen–: Beharbada informazio fidagarria haiei buruz baino ematen ez zaigulako. –Une batez begiratu, eta erantsi zuen [...]–: Narratzaileak ez dira sekula gezurretan aritzen».

Izan ere, gure «daitekeen Niaren» fabulazioa eraikitzeke erabiltzen ditugun hitzetako asko benetako asmatzaileei hartzen dizkiegu maileguan, bizitza narratzen asmatu baitute liluratu egiten gaituen eta guk ere izan nahi genukeen indar batez.

Nerabeak batik bat hitzak behar ditu, zabalik dituen bi frontetan lagun dezaten. Alde batetik, bizitzako erronka oinarritzkoetan: maitasuna, lana, gizarte bizitza... arrakasta izateko estrategiak ikasten ari da. Bestetik, bere arazo metafisikoari aurre egiten hasi zaio, nondik ote datorren, oinak non jarriko ote dituen eta norantz ote doan.

Hitzokin topo egiten jarraituko du, irakurtzen edo bistaritzen dituen –zinema, telebista...– istorioetan, eta horiekin bere bizitza gobernatzeko baliagarri izango zaizkion iruditegi sinbolikoz hornituko da.

### *Abentura-liburuen azpiko iruditegia*

Adibide gisara baino ez, abentura-liburu enblematiko batzuk aipatuko ditut, giza abenturari aurre egiteko iruditegi ezinbestekoaren elementuak baitituzte. Gaur eguneko irakurleentzat abentura-libururik erakargarrienak ote diren, ez naiz eztabaida horretan sartuko; besterik gabe azaldu nahi dut nola istorio hauetako heroiek oraindik ere eskaintzen dituzten gaur egunerako baliagarriak diren iruditegiak.

Vernerren *Lurraren erdirainoko bidaia*-ren irakurketan murgilduta, irakurleak argi ikusten du ausardiarik eta burugogorkeriarik gabe ez da goela irtenbiderik. Ahaleginari eta pertseberantziari egindako epopeia bat da narrazio hau.

Nemo kapitainak, *Hogei mila legoako bidaia ur azpitik* eleberriko pro-



## ↪ Hizpide ↪

tagonistak uste sakona utziko du irakurlearengan, askatasuna nahi izanez gero –eta nahi du– aurre egin behar diola itsasoaren sakonean desterratua izateari. Irakurleak, berari botatzen baitzaio erronka, zera ikusten du eleberri honetan: nolako alde dagoen norbera denaren eta ausart jokatuz gero izan zitekeenaren artean.

Salgariren *Sandokan* irakurtzen duenak garbi ikusten du heroiairen indarra eskuzabaltasunean eta bizi fedean sortzen dela, horien aurka sekula ez baitira garaile aterako bortxak ezarritako arau estuak.

Jim Hawkins, *Altxor Uhartea*-ko figura nagusian irakurle nerabeak bere buruaren irudi bat ikusiko du, nerabe gisa duen esperientziarena berarena. Bere aita hiltzean, Jim familiagandik urruti doa, eta helduaroan sartzen ari den nerabearen bakardadea onartu beharko du. Bizimodu horrek askatasunaren xarma dauka baina,aldi berean, norbere arauak sortzeko, norbere norabidea aukeratzeko erronka. Norabidea Smollet kapitainarena bezalakoa izan daiteke, etxean ikasitakoa gutxi gora-behera, edo John Silver-ena bezalakoa, borondate aske sustraikoena nagusi duena. Irakurleak, beraz, bi iruditegi kontrajarri izango ditu parez pare. Bata zein bestea hautatu, ez da alferrik gertatuko, biek ala biek ere bere ondorioak izango baitituzte. Abentura-liburu hau irakurri duen norbait, bere bizitzako egoera jakin batean, bi norabide horietako edozeinen alde egiten duenerako, sinbolikoki ibiliak ditu jada eleberria irakurtzean, eta gauza horiek ez zaizkio beraz huts-hutsetik etorriko.

Herbert George Wells-en *Munduen gerra* edo *Lehen gizonak ilargian* eleberrietako peripezia jarraitu duenak –abentura-liburuak horiek ere, nahiz planeta arteko gatazkak kontatu– argi ikusiko du gizaki arteko gatazka guztietan, azkenean, elkar ulertu beharra nagusitzen dela; eta, gainera, hori daitekeen gauza dela tartean gizatasuna badelako, azken batean horrek batu egiten baikaitu. Ordea, istorio horien arabera, beste planeta batzuetako biztanleekin jokoan dauden interesak erabat kontrajarriak dira, eta kasu horretan enfrentamendua da aukera bakarra, ez baitago ezer komunik tartean. Baina abentura hauek bigarren irakurketa bat ere badute, gizatasuna kentzen duten indarrekin izan beharreko gatazka. Borroka horretan ez dago adostasun aukerarik. Barne-bulkada batzuen aurrean ezin daiteke amore eman, norbere burua hondaturik ikusi nahi ez bada.

Durrel Standing, Jack London-en *Izarreko erromesa*-ko protagonista, hiltzera kondenatzen dute giltzapeturik dagoen presondegian leherkariak izateagatik. Zigor gisa, alkandora hertsagarri bat jartzen diote, gero eta estuago biltzen duena. Sufrikariotik libratzeko beste modurik ez duenez, gorputzetik askatzen ikasiko du, irudimena abian jarriz: hari esker hurrenez hurren ikusten du bere burua ezpatari frantses, indioek erasotako karabana bateko haur mormoi, marinel ingeles eta abar. Istorio ho-



## ↪ Hizpide ↪



ama



amaren  
neza



amaren  
nebaren  
kainatua

netan, eta tesi bera defendatzen duten beste askotan ere bai, irakurleak zera bereganatuko du, irudimena ez dela ihes egiteko bidea, mutur-muturreko egoerei aurre egitekoa baizik; eta, beraz, indartu eta bildu egin behar dela.

Guillermo Brown, Richmal Crompton-en pertsonaia arriskuak belurtzen ez duen errebelde bat da; normaltasunari ihes egiten dio, dekadentzia era baten gisan ikusten baitu. Guillermo eskuzabala da, borrokalaria, baina ez krudel ez materialista. Gauza da bizitza neska baten irribarreagatik konplikatzeke, edo bere koadrilaren onespengatik. Koherentea da, eta errukirik gabe jarraitzen dio logikari, baina badu beti keinu bat sormenerako eta fantasiarako.

Nerabe bakoitzaren *daitekeen Nia* eraikitzean edo azaltzean –zitezkeen *Ni* guztien artean, huts eginiko biografiak ere bai baitira–, literatur eredu hauek beren ziurgabetasunak argitze aldera joka dezakete, eta batez ere ekintzara bultzatze aldera. Beren «daitekeen Nirik onenaren» profila argi eta garbi marrazten lagunduko dioten pertsonaiak bereganatzeko modua haien bizi eta portaera eskemak antzematea da, eta horiekin bere iruditegi sinbolikoa aberastea, baliagarri izango baitzaio haien balentrien antzekoei aurre egiterakoan.

Abentura-eleberriak izaera iniziatikoa du, haren morfologia aztertu dutenek ikusi dutenez: heroia abenturaren lurraldean sartzen da, ez beti bere borondatez. Itzalez betetako leku bat izaten da, eta hara iristeko erresistentzia gogorrak garaitu behar izan ditu (herensugeak eta abar), bizitza bera ere arriskuan jarrita batzuetan. Leku horretan proba zailak gainditu beharko ditu mehatxu-egoeren aurrean; baina laguntzak ere izango ditu, hainbatetan magikoak, eta eutsi egingo dio haiei esker. Garaipenak sari bat ekarriko du, heroi gisa aitortua izatea edo balio handi-handiko zerbait –printzesa, sua–; eta horren bitartez bizitzara agertuko da berriz, batzuetan lagun egiten dion norbaiten konpainian. Itzultzeko une hori beste era batera adierazi dezakegu bere izatearen hedatzeko unea dela esanda: bere auto-kontzientzia eta bere askatasuna, gogobetetasun eta buru-satisfazio maila altu-altua ematen baitiote. Ez da besterik bizitzako bidaia, iruditegi hori makulu ziurra duenarentzat. Atrebentzia ez bada, hemen gogoratu nahi dut irudimenaren mekanismoa ikuspuntu psikologikotik ikertu dutenek oinarritzako bi funtzio egozten diotela: jakintzarako bidearena –ez alferrik du asko asmamenak irudimenetik–, eta ekintzarako motorearena (Malrieu, Philippe, *La construcción de lo imaginario*, Guadarrama).

### *Irudimenezko abenturetatik abentura errealetara*

Hemen abentura-liburuetako literatur pertsonaiak aipatu ditut, bizitzaren metafora pribilegiatua baitira. Eta liburu jakin hauek aipatu ditut


## ↪ Hizpide ↪

ia mundu guztiak kanonikotzat-edo jotzen dituelako, albo batera utzirik ondoen erantzuten ote dieten ikus-entzunezko narrazioak oso kutsatuta dauden gazteen zaletasunei. Baina esan nahi nuke, bestalde, deskribatu dugun mekanismoa ez dela literatur pertsonaien eksklusibitatea: berdin funtzionatzen du jarduera jakin batzuetan duten gorentasunagatik garaiko pertsonen hurbilpen eta miresmena sortzen duten pertsona errealekin ere. Hainbat kirolari, abeslari edo aktore ditut gogoan. Edonolakoa izanda ere, bizi erronka zail bati eutsi dioten zenbat gaztetxorengan ez ote dago, bizi berritzaile, Migel Indurain edo Juanito Oizartzabal-en kirol balentriek eragindako iruditegia (bi adibide gertuko eta goi mailako jartzeko)? Ziur naiz alkoholari muzin egitea sustatzeko, osasun-galtzearen mehatxuan oinarritzen den («ez edan, osasunerako txarra da eta», gaztetxo batentzat infernuko sua bezain urruti dagoen kontua) eta hain gutxi motibatzen duen moral horren oso gainetik dagoela kirolari-heroia imitatzeko morala. «Ez edan, Oizartzabalek edo Indurainek ez lukete egingo.»

Bestela esanda, pertsona aipagarrien biografiak iruditegi sinbolikoak eraikitzeke iturriak besterik ez dira, abentura-narrazioen ildo beretik. Eta heroiei aplikatzen zaizkien argudio berberak aplika dakizkieke, horixe bilatzen duen literatur genero bat denez gero, hots, etsenplu ematea.

Bai diskurtso erromantikoak (pertsonaren sakonekoari dei egiten dio) bai diskurtso modernistak (pertsonaren alde arrazionala eta hobetzeko grina azpimarratzen ditu) hain indar gutxi duten honetan, zeharkakoago bat erabili behar da, ereduak literatur fikzioan hautatzeko alegia. Barruan dute biziari aurre egiteko pultsioa, eta irakurleari ezartzean errespetu handiagoa diote askatasun pertsonalari, hori izaki sakratuena boladan dagoen norberekoikeriarentzat. «Konzientzia posmodernoarean hedatzeak deuseztu egin zituen norbanako baten arrazoa, autoritatea eta konpromisoa; haren definizioa pertsona gisa, harengan jar zitekeen konfiantza, benetakotasunaz zuen zentzua, liderrengan zuen konfiantza, haren sentimenduen sakontasuna eta aurrerabidean zuen fedea. Haren guztiaren lekuan arbela zuri bat aurkezten zaigu, norbanakoek beren identitatea izkribatu, ezabatu eta berriz idatz dezaten, etengabe hedatzen eta aldatzen ari den harreman pertsonalezko sare inkoherente batek bide ematen dion edo bultzatzen duen neurrian.» (Gergen, *El yo saturado*, 287. or.)

Azken batez, iruditzen zait kulturaren une honetan Ni zentral bat aurkitzeko bide bat dela abentura-narrazioek proposatzen duten tentsioa berreskuratzea; *heroiak* bere bizitza helburu baterantz polarizatuz –bizitza jokoan jarrita ere– bere burua asmatzen duen abentura horietako tentsioa alegia.



Teresa Colomer (1998). *La formación del lector literari*. Barcanova. Barcelona. (Versión castellana (1998). *La formación del lector literario*. Fundación GSR. Madrid)

Berger-Luckmann (1972): *La construcción social de la realidad*. Amorrortu. Buenos Aires.

Gergen, K. (1997): *El yo saturado*. Paidós. Barcelona.

Duck, Ll. (1998): *Mito, interpretación y cultura*. Herder. Barcelona.

Sloterdijk, P. (2002): *En el mismo barco*. Siruela. Madrid.

Savater, F. (1976): *La infancia recuperada*. Taurus. Madrid.

Leon, Donna (1998): *Un mar de problemas*. Seix Barral. Barcelona.

Simmel, G. (1988): *Sobre la aventura. Ensayos filosóficos*. Península. Barcelona.

Malrieu, Philippe (1971): *La construcción de lo imaginario*, Guadarrama. Madrid)

### *Hizkuntzaren mugak, munduaren mugak*


Lehen aipatu dudan desafiliatze joera hori ez da derrigor konpromiso faltaren gisan ulertu behar. Pertsona askok bere baitaratze moduko bat bizi dute, beren buruaren definizio bila egindako atzera egite moduko bat. Ez zaizkie baliagarri eskaini dizkieten famili, talde, aberri edo erlijio identitateak eta, beraz, beharturik daude beren heroiak harremanetan eta irakurketetan bilatzera. Gazteek zein mugarri erdietsiko dituzten, oso baldintzaturik dago asmo handiko iruditegi sinbolikoa hartzean edo hain exijentea ez den bat hartzean zer-nolako aukerak irekitzen dizkieten beren buruari. Desira, letra handiz, ez dute sekula harrapatzen beteaz doazen desirek. Baina norberak aurrean sinbolikoki jartzen dituen desirak oso mugatuak baldin badira –«errealistak» esaten dute anbizio gutxikoek–, ez da oso urrutira iritsiko.

Wittgenstein-ek zioenez, «lengoiaren mugak [...] nire munduaren mugak dira». Lengoaia batzuk oso dira kamutsak. Beti errealitatea, parean daukanaren deskribapena aipatzen duenak ez du leku askorik ixten asmamenerako. Beste lengoaia batzuek, ordea, teink jartzen gaituzte, eta urrutiago joatera bultzatzen. Abentura-narrazioak dira Niaren asmo handien eta hedatzearen adierazpen sinbolikorik ahaltsuenetako bat.

Eta ez dut ezertarako aipatu tentsio hori alde sakonerantz, norbere barrenerantz adierazten duten lengoiak, hori beste upel bateko ardo da eta, beste abentura bat.

Beraz, Nia gizarte-saturazio maila gogorraren pean dagoela eta horrek bere burua lengoaia inkoherente eta are kontraesankorren bidez aditzera ematera behartzen duela, norbanakoaren esentzia salbatu nahi bada, beharrezkoa da Nia teink jartzea helburu baterantz, «arrazionalitatea, emozioa, inspirazioa eta borondatea bezalako ezaugarri erreal identifikagarriak dituela» uste den helburu baterantz» (Gergen, *El yo saturado*, 26 or.).

Non argiago ikusi hori abentura-liburuetako heroiengan baino?





# Heroiaren bidaia

JOANES URKIXO



## I. Non abenturarako deia luzatzen didaten

Lehenengo eta behin, abentura liburuez mintzatuko bagara, kontzeptuari berari arreta apur bat egitea komeni dela uste dut. Jardunaldi hauetako antolatzaileek erregu-iradokizun-gomendio sotil bat egin zidaten gonbidatu nindutenean, alegia, abentura *sensu stricto*, bere zentzu zehatzean eta ez modu zabalean hartu beharko nuela, nire joera naturala menperatu eta abentura fantastikoa, zientzia-fikzioa eta horrelakoak alde batera utziz. Jakina, badakit zer dabilkizuen buruan une honetan: «*hara, eta orduan, nola permititu diote Gemma Lluch-i Star Wars-i buruz hitz egitea?*». Bai galdera zorrotza. Baina, ai amigo, konfidantza dagoenean, badakizue... Tira, zirikadak baztertuz, aitor dezadan antolatzaileen eta Gemma-ren alde nagoela kasu horretan: nire iritziz, Star Wars abentura-istorio peto-petoa da, eta, berak aurea hartu ez balit, neronek ere mintzagai hartuko nukeen gustu baino gustura. Jakina, space-opera ez da zientzia-fikzioa, zeren, fikzio hutsa bada ere, zientzia arrastorik ere ez daukalako. Eta *Erastunen Jauna?* Zeren, fantasia heroikoa ere, ez al zen sortu abentura generoaren adar moduan? Kontuan izanik, gainera, ni bi azpigenerootan oso eroso sentitzen naizela. Tentazioak jota egon nintzen, ezin ukatu, baina, azkenean, mutil txintxoaren nire alde ezkutua inposatu zen eta abenturarako deia onartu nuen, muga estu eta guzti.



## II. Nola hiztunak mintzaldi honetarako aztergaiak bilatu eta aukeratzen dituen

Space-opera eta fantasia heroikoa alde batera utzita, mintzaldian langarri gisa erabiliko nituen abentura liburuak bilatzeari ekin nion. Hasiara batean egile garaikideren bat hautatzeko asmoa banuen ere, espero ez bezalako zailtasunak topatu nituen. Izan ere, konturatu nintzen nekez aurki daitekeela gaur egun idatzitako abentura istorio peto-peto horietakorik, zeren, Tolkienen garaitik hona, telebista eta zinemaren lankidetzaz erabakiorra dela medio, gauzak zeharo aldatu eta generoen arteko mistifikazioaren aro batera heldu baikara. Tolkien berak, fantasia heroikoa inaurguru zuenean, abenturaren lanabesak baliatu zituen barra-barra, eta era berean, Harry Potter-en istorioak, magiaz ezezik, abentura eta misterioaz oinarritzen dira ia hein berdinetan. Eta zineman zer esanik ez; horra hor, adibidez, *La Momia*: akzioa, abentura, magia, terrorea eta umorea, dena batera eta prezio berdinean.

Egia esateko, gaur ekarri dizuedan mintzagaiak balio unibertsala du eta, egiaztatzen saiatuko naizen moduan, berdin lioke drama garaikide bat aztertuko bagenu ere. Hala ere ni, lehen aitortu dudan zintzotasunaz, antolatzaileen erregua betetzen saiatu naiz eta, *Star Wars* edo *Eraztunen Jauna* konparazioen bat egiteko aipatuko baditut ere, neure mintzaldia jatzeko Roald Dahl, Dumas, Mark Twain eta, batez ere, Stevenson-en *Altxor Uhartea* aukeratu ditut. Hau esanda, abia gaitezen, ba, abenturara.

## III. Zeinetan «heroiaren bidaiaren» gaia azaltzen den

1949 urtean, Joseph Campbell antropologo eta mitologista amerikarrak «*Mila aurpegidun heroia*» izeneko lana argitaratu zuen. Lan horretan, Campbellek Carl Jungen arketipoen teoriak erabiltzen ditu, erlijio eta mito guztien sustraian dagoen egitura bakar eta amankomuna aurkitzeko. Berba gutxitan esanda, historia osoan barreneko kultura guztien barreneko istorio guztiak, funtsean, istorio bakar berbera direla baieztatzen du. Istorio hau «monomito» edo, are ezagunagoa dena, «Heroiaren Bidaia» izendatu zuen.

Eredu honek azaltzen ditu, beraz, heroi mitologikoez gainditu behar dituzten erronka guztiak: Medusa txikitu, Minotauroa hil, Urrezko Ardilarrua aurkitu, Itacara itzuli... baina, mitoez gainera, Heroiaren Bidaia haziketa, esperientzia, eta bizitza beraren eredu da, kultur guztietan agertzen den Pasabidearen Erritoaren adierazpena delako. Hainbat eta hainbat istoriotan aurki dezakegu honen erakusgarri garbia, mito zaharretan ezezik lan modernoetan ere bai: *Huckleberry Finn*, *Matilda*, *Altxor Uharte*-ko Jim Hawkins, heltzarorako ataria igaro behar duten gaztetxo nerabeak baizik ez dira.

Joseph Campbellek 18 puntu edo urratsetan sintetizatu zuen bere ere-

## ↪ Hizpide ↪

dua, irakurtzen dugun literatura, ikusten ditugun filmeak eta jasotzen ditugun esperientziak ulertzeko lagungarria izango zelakoan. Literaturari dagokionez, Heroiaren Bidaia beste eredu unibertsalaren aurka gailentzen da nabarmenki, Vladimir Propp-en eredu, alegia.

### IV. Non heroia-aren bidaiaren eredu Propp-en ereduarekin kontrajartzen den

Kritikatu izanenez, Propp-en arabera ipuin tradizionala ez da, funtsean, heroiak egiten duen ekintza bakan sorta bat besterik. Berarentzat, istorioa osatzen duten funtzioak beti orden berebean agertzen dira, eta, egia aitortzeko, hemen bai aurki daiteke eredu unibertsal bat. Arazoa berak emandako funtzio zerrenda luzean datza, hogeita hamaika gehiegitxo baitira kanon erabilgarri baterako, azken batean nekez aurkituko baitugu istorio bakar bat non funtzio guztiak ordezkaturik dauden. Beste aldetik ere, eta hainbaten iritzi, Proppen lana formalista izanik formalistegia da, zeharo bazterrean uzten baititu trama funtzional hutsa ez diren ezaugarri asko: tonoa, modua, estiloa, baina, batez ere, heroiaren karakterizazioa. Aski ezaguna da aspaldiko esperimentu hura, non, funtzio guztiak zehatz-mehatz beteaz, azkenean istorio absurdo eta itxuragabea sortu baitzen.

Heroiaren Bidaia, berriz, alderdi praktikoan Proppena baino sano erabilgarriagoa da, zeren, honetan ez bezala, haren urrats guztiak istorio guzti-guztietan betetzen omen direnez, azterketa-tresna paregabea eskaintzen digulako, ez bakarrik irakurtzen duguna ulertzeko, nork bere istorioak moldatu eta idazteko ere bai.

Esan dezadan, bide batez, nire ustez ereduak ez direla erabat hutsezinak, ezta elkarren baztergarriak ere, eta adibiderik garbiena jardunaldi hauetan bertan aurki dezakegu. 1975 urtean, George Lucas-ek *Star Wars*-en gidoiaren bigarren bertsioarekin ziharduela, Joseph Campbell-en liburuekin topo egin zuen eta berahala honen eskema baliatu zuen gidoia birmoldatzeko. Hori Lucasek berak aitortu zuen elkarriketa batean. Hala ere, Gemma Lluchek atzoko mintzaldian erakutsi omen zuenez, *Star Wars* Proppen ereduaren argitara azter daiteke.

### V. Nola formulatzen den gaur egun «heroia-aren bidaia», eta beste zertzelada batzuk

1985 urtean, idazle, gidoilari eta gidoigintzaren teoriko Christopher Vogler-ek honako lana argitaratu zuen: «*Joseph Campbell-en Mila Aurpegidun Heroia ulertzeko gida praktikoa*». Bertan, Campbell-en eredu sintetizatu eta hamabi urratsezko eskema bat eskaintzen zuen, berehalako arrakasta lortuz gidoigileen zein idazleen artean. Urrunegi jo gabe, Voglerren aholkulari lanetik sortutako hainbat filmetan aurki daiteke He-



## ↪ Hizpide ↪

roiaren Bidaiaren aztarna: *Itsasneskatoa, Ederra eta Piztia, Aladdin, Lehoi Erregea, Borroka Kluba, Lerro Gorri Meharra*, eta abar eta abar, sei bat mila gidoira arte. Aldi berean, liburu andana aztertu ere egin zuen ereduaren arabera: *Oz-eko Aztia, Yankitar bat Arturo erregearen gortean, Montecristo-ko Kontea*, eta abar.

Hortaz, egindako lanak aztertzeko orduan Heroiaren Bidaia erabilgarria dela esan daiteke, eta halaxe egiaztatzeari ekingo diogu mintzaldiaren bigarren atalean. Baina, horra jo aurretik, egin dezagun beste hausnarke-ta labur bat: zenbateraino erabil daiteke eredu hau idatzitakoa aztertzeko ezezik nork bere lana sortzeko ere? Pentsa baitaiteke honelako eskema tinko bati pausuz pausu jarraitzeak oso bide estu eta mugatua uzten diola literaturgileari, agian gidoigilearentzat aproposagoa delarik.

Jakina, egia da zinema gidoiak egitura sendo eta zehatza behar duela, azken batean luzera markatuari eta ikusleen arreta deitu beharrari aurre egin behar dio eta. Alderantziz, literatura intimista, edo nouveau roman tankerako eleberriak idazteko orduan, nekez moldatuko ginbateke Heroiaren Bidaiarekin. Beste genero batzuri begira, ordea, emaitza hobek eskaintzen ditu. Egiaztatuta dago, esaterako, John Grisham bezalako *best seller* egile batzuk ereduaz baliatu direla inoiz edo gehiagotan, eta horrek, seguraski, eragina du beraien estilo eraginkorrean, literatura jasoa izan gabe irakurlearen arreta eta kilika pizten dituzten moduan.

Edozelan ere, inoiz inon Heroiaren Bidaiaren adibide paradigmatorik badago, hori Tolkien-en *Erastunen Jauna* da. Hau Joseph Campbell-en *Mila aurpegidun heroia* baino urteak beranduago sortu bazen ere, ez dago jakiterik Tolkien ereduaren oinarritu ote zen, nik behintzat ez dut hori egiazta dezakeen frogarik aurkitu. Eta, hala ere, *Erastunen Jauna* beti oinarritzko testu moduan erabiltzen da Heroiaren Bidaiaren ereduak ilustratu eta azaltzeko. Edonola ere, ereduak balio unibertsala baldin badu, edozein istorio motarekin funtzionatu behar luke. Ikus dezagun hori egia den ala ez.

### VI. Zeinetan heroien bidaiaren urrats guztiak egiaztatzen diren, liburu aztergaien arabera

Azaldu dudana legez, Heroiaren Bidaia, gaur egungo formularen arabera, hamabi pausu edo urratsetan bilakatzen da. Azter ditzagun pausu hauek zenbait abentura liburu ezagunen argitarara:

#### 1. Heroiaren mundu arrunta

Aurreneko urrats honetan, heroia edo, hobeto esan, heroigaia, bere eguneroko giro eta ingurunean aurkezten da, laster gainera oldartuko zaion abenturaren susmorik batere ez duela. Zenbat eta arruntago, aspergarriago, tristeago izan mundu arrunta, hainbat eta urrunago egongo da



## ↪ Hizpide ↪

abenturaren mundutik, eta geroago datorren aldaketaren dramatismoa indartuko du.

Hori dela eta, egoera arketipiko batzuk errepikatzen dira hasierapun-tu hauetan. Batzuetan, giro aspergarri eta frustragarria da: Alicia asper-asper eginda, aharrausika bizi da; Luke Skywalker frustratuta dago ezin delako pilotu akademiara joan, beste gazteak bezala; *Altxor Uhartea*-n, Jim Hawkins ostatu triste eta txiro batean bizi delarik, laster aita gaixotu egingo zaio. Era berean, D'Artagnan Parisera doa, pobre baino pobrea-go, han bizimodua aterako duen itxaropenaz.

Bestetan, protagonistak zorigaiztoko bizimodua darama. Roald Dahl pertsonaia mota honen zalea da oso: Matildaren gurasoek mespretxatu eta baztertu egiten dute alaba, hau arruntkeriaren artean nabarmentzen delako; *James eta muxika erraldoia*-n, izeko nazkagarriek txakur bizimodu-  
dua ematen diote mutilari; *Charlie eta txokolate lantegia*-n ere txirotasun gorria deskribatzen zaigu.

Beste egoera arrunt bat umezurztasuna izaten da: Luke Skywalker, James, Harry Potter, Tom Sawyer, umezurtzak dira Jim Hawkins izango den bezala.

Eguneroko bizimodu honetan gainditu behar dituzten oztopoak ari-nak dira, hutsalak agian, baina trebakuntza egokia dira gerora sortuko diren erronketarako. Jim Hawkinsek ostatuaren kargu hartzen du aita gaixotzean, gero honen heriotza jasan behar, aldi berean Bill Bones beldur-garriarekin moldatu, eta beste piratek sortzen duten izuari aurre egin. Jimen beldurra hain sarritan aipatzea ez da hutsalkeria, alderantziz muti-laren ahulezia azpimarratzea du asmoa, pirata gaiztoek bezala guk ere ez baitugu nerabe batengandik kemen eta ausardiarik espero izango.

### 2. Abenturarako deia

Halako batean, mundu arruntaren egunerokotasuna hautsi eta he-roigaiak berri asaldagarri bat jasotzen du. Mezuak geroko arazo eta arris-kuaren usaina dakar, eta normalean lilura, jakingura eta beldurrezko nahasmahas sortuko du gaztearen barruan.

Jim Hawkinsi abenturarako deia datorkio Bill Bonesek, hiltzorian da-goela, zera aitortzen dionean, Flint piratarekin ibilia dela, eta, areago, haren altxorra non dagoen ezkutatuta badakiela. Baina, gogora dezagun, aitorpen hori, piraten erasoarekin batera, Jimen aitaren hiletaren egun berean gertatzen da. Hortaz, esan liteke abenturarako egiatzko deia azken hau dela, heltzaroa heldu eta mutikoak neurria eman behar izatearen oharra, alegia.

Frodok ere jakingura eta beldurra sentitzen ditu lehenengoz Gandalfek eraztuna erakusten dionean, nahiz eta hasieran erantzukizunari uko egin. Wendy-ek bere nebatxoan irudimena pizten du Peter Panen isto-







ria kontatzen, eta hara non Peter Pan bera azaldu, Sekulako Herrira joateko gonbitea eginez. Jamesen mundu itogarrian gizon misteriotsu bat agertu eta krokodilo mihi magikoak eskaintzen dizkio.

Abenturarako deia, azken batean, mundu arriskugarri batean barneratzeko tentazioa da, nahiz eta mundu horretatik itzultzea ezinezkoa iruditu. Baina heroigaiak erronka onartu eta bizirik irauten baldin badu, berrindartuta, purifikatuta itzuliko da.

### *3. Deiari uko egin edo ezbaikor erantzun*

Heroigaiak zalantza ulergarriak erakusten ditu, ezbaian dago tartetxo batean. Batzuetan ezezko garbia emango dio abenturarako deiari, bestetan segurtasunaren eta tentazioaren artean kolokan ibiliko da, azkenean baietz esan arte.

Jim Hawkins-ek entzungor egiten dio aurkezten zaion abaguneari. Berak nahi duen bakarra zera da, Bill Bonesek zor dion dirua kobratu, berataz eta beste piraten bisitez libratu, eta bere mundu arruntaren oreka berreskuratu.

Zenbait egilek zalantzak adierazten dituzte atal honen inguruan, inoiz urrats gutxiagoko eskema bat proposatu ere egin dutela. Ez baita hau izango heroiak zalantzarik erakusten duen azken aldia, hortaz, zergatik hau azpimarratu, eta ez besteak? Dena dela ni lehengo harira nator berriro, oraingo zalantzak eta ukoak segidako erabakiaren indar dramatikoak areagotuko duela. Azken batean, ez da berdin heroia zalantza puntu honetan zein beste batean adieraztea.

### *4. Gidariaren bultzada*

Zalantzak argitu eta bazterrean uzteko, mentor edo gidari on bat bezalakorik ez dago. Hoberen ezagutzen ditugun istorioak gidariz josita daude: *Erastunen Jauna*-n Gandalf, *Star Wars*-en Obi Wan Kenobi edo geroago, *Yedi-ren itzulera*-n, Yoda. *Huckleberry Finn*-en Jim esklabua, *Harry Potter*-en, Dumbledore aztia.

Batzuetan gidariak berak dakarkio heroia abenturarako deia, bestetan berriz dei horren ondoren azaltzen da. Protagonista gazte nerabea denean, sarri askotan galdutako aitaren hutsunea betetzera dator gidaria. Baina, kasu guztietan, gidariak misioaren nondik norakoak prestatzen lagundu, eta hartatik garaile ateratzeko trebakuntza ematen dio.

*Altxor Uhartea*-n hiru gidari izango ditugu baten prezioan: Livesey doktorea eta Trelawney squirea hasiera batean, zeini geroago Smollet kapitaina erantsiko zaien. Beraien laguntzaz, Jimek aurrerapausu egingo du zai daukan abenturan barneratzeko, hau da, heltzarorako bide zuzenari ekingo dio.

### 5. *Lehen Ataria igaro eta Mundu Berezira sartu*

Gure heroigaiak berebiziko erabakia hartu du, eta pausu labur honekin aldaketa izugarria ekarri dio bere bizitzari. Istorioaren planteamen-dua zeharo itxita geratzen da, eta kontakizunak itzulinguru bizia egiten du, hemendik aurrera dimentsio berri ezezagun batean murgilduko bai-kara.

Kasu gehienetan, Mundu Berezirako Atari honek dimentsio fisiko nabarmena hartzen du: *Amaigabeko Istorioa*-n, Bastian liburuaren barru-ra sartzen da; *Eraztunen Jauna*-n, Lurralde eta Baso Zaharraren arteko mugan dagoen tunela igaro behar dute; *Peter Pan*-en, izar urrun batean dagoen Sekulako Herrira hegan egin; *Huckleberry Finn*-en, Mississippi ibaian dagoen Jackson irlara txalupaz nabigatu; *Harry Potter*-en tren gel-tokiko horma bat zeharkatu...

*Altxor Uhartean*, *Jim Hawkins*-ek diligentzia hartzen du, bere bizitzan lehenengoz etxetik aldegin eta Bristolera joateko, han bere abenturaren abiatokia aurkituko duelarik.

### 6. *Erronkak, adiskideak eta etsaiak*

Behin abenturan barneratuta, heroigaiak bere misioaren inguruko gorabeheretan irakatsia izan beharra dauka. Hori dela eta, atal honetan borrokatzen eta armak erabiltzen trebatuko da sarritan baina, areago, ezagutzen ari den mundu berriaren nondik norakoak ikasiko ditu gida-rien laguntzaz. Kasu gehienetan, trebakuntza hau amaitu gabe, heroiak abenturako erronka nagusiei aurre egin beharko die, gaizkiak beti ongiari abantaila eramaten diolako.

Matildak bizimodu berriari ohituko zaio bere andereño-ama ordearen eskutik. D'Artagnanek ere hiru mosketeroen irakasbide paregabea izango du soldadu bizimoduari neurria hartu ahal izateko. Jamesen gida-riak, berriz, muxikaren barruan bizi diren zomorro bitxiak izango dira.

Jim Hawkinsek untziko zereginetan jardungo du, aldi berean bere burua zaintzen eta gizon bihurtzen ikasten duelarik. Horretarako, lehen esan dugunez, doktore, squire eta kapitainaren gidaritzaz izango du. Bai-na, sarritan jazotzen den legez, hemen ere *sasi-gidaria* agertzen da eskena-tokian, hau da, jator itxuraz aholku okerrak edo asmo zitalezkoak ematen dizkion pertsonaia. John Silver, alegia.

Atal honetan, heroiak *lehenengo zauriak* jasoko ditu. Hauek arrisku bizi baten itxura har dezakete: Jamesen muxikari marrazoek erasotzen diote aginkadaka. Matilda ikastetxeko *itolekuan* enzerratua izango da. Jim Hawkinsek, kupel barruan sartuta, marinelen matxinatzeko asmoaren berri jakingo du, aldi berean sasi-gidariaren benetako aurpegia ezagutuz. Lehenengo zauri hauek trebakuntzaren parte badira ere, aldi berean au-rreran zain dituen erronka eta nekeen premonizioa dira.





### 7. *Leizezulo Ezkutura hurbildu eta Bigarren Ataria igaro*

Abenturaren erronka nagusia heldu da. Bidea gero eta arriskuz josiago dago, eta begibistan Bigarren Ataria antzematen da, zeinetatik barneratuz gero heriotzaren aurpegia aurrez aurre topatu egin ahal den. Hainbat mitologi kondairatan, Leizezulo Ezkutuak egitura fisikoa dauka: Sigurd kobazuloan borrokatuko zaio herensugeari. Teseo minotauroari, berriz, lurrazpiko laberintoan. Luke Skywalker Heriotz Izarraren barrura xurgatua da, eta han Darth Vaderrekin lehiatu beharko du.

*Altxor Uhartea*-n, irlaren parera heldutakoan eta marinelen matxinadaren usainetan, Jim irlara doa ezkutuka, Bigarren Atarian zeharkatu eta abenturaren puntu gorenera hurbilduz.

### 8. *Proba Gorena*

Irlara heldu bezain laster, Jimek ikusten du nola John Silverrek mari-nel zintzo bat hiltzen duen odol hotzean. Izuak eraginda, Jim gazteak gonortea galtzen du segundu batzuetan, baina segidan bere senera itzultzen da, fisiologikoki baita emozionalki ere. Christopher Voglerrek idatzi zuenez, heriotzak sortutako zirrarak heroia-aren barrukoak irauliko ditu, kemen eta burukonfidantza handiagoko egoera batera eramanez. Proba Nagusia gainditzeko beharrezko izango dituen kemen eta burukonfidantza, alegia.

Orain arte irakurri dugun guztiak heroia-ekin identifika gaitezen bali-olio izan du. Une honetatik aurrera, berriz, onik irtengo den ez den larrialdiarekin egongo gara, eta azkenean garaile suertatzen denean emozio eta kilikadura sentituko dugu. Nabari dezagun puntu honekin, berriz ere, aintzinako gizarteetako inimiziazio erritoekin lotu dugula. Izan ere, haietan ezinbestekoa zen bizitzaren eta heriotzaren arteko gatazka mota hau, ondoko elkarte eta sekta sekretu guztiek euren erritualetan ere gorde izan dutelarik.

### 9. *Saria*

Proba Nagusia gaindituta, heroiak bere neke guztien ordaina jasoko du. Amodiozko istorio batean, ordain hori neska zintzoaren musua izan-go litzateke. Abentura batean, berriz, altxorra da. *Altxor Uhartea*-n, Jimek Ben Gunnekin topo egiten du, eta honek altxorraren berri badakiela esan eta hura eskuratzeko laguntza eskaintzen dio. Hortaz, urrea hartu eta etxera itzultzea besterik ez dago... nahiz eta etxerako bidea arrisku gorritz beterik egon. Gogora ditzagun antzeko kasuak: Matildak, adibidez, ikastetxeko zuzendari gaiztoa ihesean jartzen badu ere, askatasun-erako bidean gurasoen oztopoa gainditu beharko du. James New Yorkera heldurik ere, ez du hango askatasuna merezi izango azkeneko erronkan garaitu arte.

### 10. *Mundu Arrunterako Itzulbidea*

Tranpa hilgarri bihurtutako irla hartan, Jimek ikusten du irtenbide bakarra, itsasuntzia, piraten eskuetan dagoela. Hortaz, hauen mehatxutik askatu eta untzia berreskuratuz beharko du, Proba Gorenean gainditu dituenak baino are arrisku handiagoei aurre eginez. Aldi hartan heroia izateko prest dagoela erakutsi badu, orain bidean ikasitako guztia, bildutako kemen guztia, jokoan ipini beharko du etxera itzuli nahi badu.


Istorio mitologikoen moduan, abenturetan ere heroiak gizagaineke laguntza jasotzen du gorabehera guztietan zehar, baina batez ere azken txanpa honetan, inoiz baino hiltzeko zoriagoan dagoela. Mitologian jainko eta jainkosen partaidetza zuzenaz konpontzen da arazoa, gure kulturako abenturetan berriz unerik larrienean datorren zorioneko gertaera da. Matildaren kasuan, FBI-koek gurasoak atxilotzen dituzte. *Star Wars*-en, Han Solok Luke salbatzen du Darth Vaderren eskutik hiltzera doan une berexean. Jim Hawkinsek berriz zorte ona lagun izango du tarte honetan barrena: gotorlekutik irteten denean piraten susmorik altxatu gabe; txalupa hartu eta korronteak itsasora barik untziraino daramanean; untzia askatu ondoren hau itsasora barik irlako aterpe batera doanean; Israel Hands piratak erasotzen dionean, pistola eskutik erori, hura jo eta jokoz kanpo uzten duenean... harik eta, zorte onaren baliabideak agortuta, heriotzaren aurrean bakarrik aurkitzen den arte...

### 11. *Heroiaren berpizkundea eta Hirugarren Ataria igarotzea*

Jim Hawkins piraten preso dago, zorte onak bertan behera utzi duela esan liteke. Orduan Jimek, geratzen zaion adore guztia bilduta, piratei kalamatika zorrotz bat ematen die, berenak egin duela eta bere laguntza gabe urkatuak izango direla adieraziz. Erantzun gisa, pirata gehienek bertan seko hil nahi dute, baina John Silverrek besteek baino sen hobea dauka eta badaki esandakoa egia dela, hortaz, Jim heriotzetik salbatzen du azken unean eta beraren alde egiten du, gerora bere burua salbatzeko asmoz. Gaiztoen buruzagia, etsairik azkarrena, bere aldera ekarriz, Jimek heriotzarekin azken lehia borrokatu eta gainditu du, handik berpiztuta irteten delarik. Orain geratzen den bakarra, altxorra untziratu eta etxerantz abiatzea da.

### 12. *Mundu Arruntera itzuli, elixirra ekarriz*

Christopher Voglerrek, elixiraren metaforarekin, heroiak berekin dakarren onura adierazi zuen. Hori dela eta, *Eraztunen Jauna*-n izan daitezke elixirra Samek ereiten dituen hazi magikoak, zeini esker Saruman gaiztoak moztutako zuhaitzak berriro haziko diren. *Amaigabeko Istoria*-n, Bastianek Fantasiako iturri bateko ur miragarria eramaten du, berarekin aitaren tristezia sendatuko duela. Heroiak, azken batean, etxera itzuli



## ↪ Hizpide ↪

beharra dauka, hementxe erabiliko baititu bidaian eskuratu dituen altxor-  
rrak eta onurak.

Sarritan, ordea, etxera itzultzea ez da ondorioa, baizik eta bidaiaren  
helburua bera. Hori gertatzen da *Oz-eko Aztia*-n edo *Alizia Lurralde*  
*Miresgarrian*-en.

Beste askotan, heroia etxera itzultzen bada ere, ez da hasierako etxea  
itzultzen diren hori, euren benetako lekua beste nonbait aurkitzen baitu-  
te. Kasu honetakoak Matilda eta James ditugu.

Baina, beti, heroiak berekin ekarriko ditu abenturako zauriak, dela  
zauri fisikoak –Luke Skywalkerrek galtzen duen eskua, Frodok galtzen  
duen hatzamarra–, edo zauri emozionalak, Jim Hawkinsenak bezala. Zeren  
gure heroiak, gizon bihurtu eta urte askotara, ameskaiztoetan egingo ditu  
oraindik John Silver, irla madarikatua eta, batez ere, «zortzibanako pie-  
zak, zortzibanako piezak!» etengabe oihuka dabilen lorittoa.

### VII. Non istorio hau amaitu eta entzuleei parte hartzeko gonbitea egiten zaien

Gu ere geure Mundu Arruntera itzuli gara azkenean, salburik eta bizi-  
rik. Ez dakit, ordea, zauriturik ala osorik, ezta zuek ere inongo altxorrik  
edo elixirrik ekarri ote duzuen bidaiatik. Pozik geratuko nintzateke, Ji-  
men kasuan ez bezala, behintzat zuen ameskaiztoetan agertuko ez ba-  
nintz. Eskerrik asko, edonola ere, nire bidaiakide izanagatik.

